



ARANTZA → 15  
Baserritarren Eguna

2010eko urriaren 28a | XXX. urtea | 529. zenbakia

**San Martinak**  
Aurtitz, Arano, Berroeta,  
Senpere...

**BORTZIRIAK → 10**  
Urriaren 31n Beran Euskara  
Mankomunitatearen Eguna

**SUNBILLA → 16**  
Dantzarien jaialdia  
azaroaren 6an

**GOIZUETA/ARANO**  
Kultur ekitaldiz  
beteriko azaroa

**ZUGARRAMURDI → 31**  
Sorginen epaiketa  
gogoan ekitaldiak



## ELIZONDOKO ABESBATZA


# Kantuan probatzeko gonbita egin dute, berdin haur zein helduentzat

Helduen taldean 30 kide ari dira aurten eta entsaioak astelehenetan dituzte.

Orain haurren taldea indartzea dute helburu, gero, helduen taldera pasa daitezten.

Jakinmina duenari, entsaio batera etortzea proposatzen diote.

**ELKARRIZKETA → 3**



**Unai RODRIGUEZ** | Waterpolo jokalaria

**KIROLA → 36**

**Oiasso-Bidasoa XXI taldeko jokalaria beratarra**

Unai Rodriguez Korta da (20 urte) Irungo waterpolo taldeko jokalaria gazteena. Aurten, lehenbiziko mailan ari dira.



**ERREPORTAJEA → 4-5**

**Emakume baserritarren begirada argazki erakusketa batean bildua**

24 emakumeren argazkiekin osatutako erakusketa prestatu dute Raket Ricok eta EHNEK. Abenduan Donezteben izanen da.

# Birziklatu



Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papereak,  
egunkariak, aldiakariak.



Plastikoako ontziak,  
latak, brikak.



Beiratzko botilak,  
flaskoak, poteak.



Barango  
Uda



Baratzetako  
Herri Herrikoen  
Mankomunitatea



Mataroko  
Zoritu onkaren  
Mankomunitatea



ECOEMBES

SEPARAR PARA RECICLAR

Azaroaren **1ean**, astelehonarekin  
**BASERRITARRAREN EGUNA**  
Antolatzailea: Ekaitza Elkarte

Azaroaren **5ean**, ortzararekin  
19:00etan, Zahar Txokoa  
**SOLASALDIA: BERDABIO-ELAMA-AMUSENE**  
PATZIKU PERURENA  
21:00etan, Ekaitza Elkarte  
**BERTSO AFARIA: MIREN AMURIZA ETA ALAIA MARTIN**

Antolatzaileak  
GURASO ELKARTEA  
EKAITZA ELKARTEA

Laguntzailea  
Arantzako Udala

Azaroaren **6an**, larunbatarekin  
12:00etan, Arantzako Eskolan  
**HAURRENTZAKO IPUINAK: PELLO AÑORGA**  
16:30etan, Arantzako Eskolan  
**HAURRENTZAKO BIRZIKLAPEN TAILERRA**  
**ETA BERENDUA** (txokolatea eta pastelak)  
17:30etan, Ekaitza Elkarte  
**GARAI BATEKO ANTZERKIEN EMANKIZUNA**  
19:30etan, Ekaitza Elkarte  
**OPIL TAILERRA**  
Ajai ondorenean, Ekaitza Elkarte  
**BIKOTE BESTA ETA TRIKIHOTS**  
**TALDEAREN EMANKIZUNA**

**ARANTZAKO azaroak 1, 5 eta 6**  
**KULTUR EGUNAK**

www.ekaitza.com

1942an eman zituen lehen pausoak Elizondoko helduen abesbatzak. Koru ospetsua izan zen eta Juan Eraso zuzendari zela, kanpoan ere saio aunitz eman zituen: Frantzia,

Belgika, Austria, Britaina Handia... Urteekin, ordea, martxa galtzen joan zen, 2004an abesbatza berritua sortu zen arte. Orain astelehenero egiten dituzte entsaioak Elizondoko

Arizkunenean (21:00). Baina, badute bertze erronka bat ere: iaz sortu zuten Elizondoko koru ttikiari segida ematea. Hauek asteartean biltzen dira Arizkunenean (17:30).

Maki URTASUN, Mari Joxe ALAÑA eta Kristina URTASUN | Elizondoko Abesbatza

# «Kantatzea gustuko duten guztiak probatzera animatu nahi ditugu»

G. PIKABEA | BAZTAN

## Zein egoeratan dago helduen korua?

2004an Isabel Lacar zuzendari sartu zenean, bertze lan gogorrari ekin zion eta etapa berri honetako bere lehen kontzertua 2005ean eskaini zuen. Geroztik indartzen joan da eta bozpasei lagunekoa taldea izatetik 30ekoa izatera pasatu da. Baina jende berria sartzea nahi dugu. Urte hauetan inguruan, Lekunberrin, Iruñean, Irunen eta Madrilen saioak izan ditu.

## Nork osatzen duzue helduen korua?

Kasik denak baztandarrrak gara, baina batzuetan Giltzarri abesbatzatik, Iruñetik edo Doneztebetik ere etorri izan dira. Korua zonaldeko edozeinentzat irekia dago.

## Nolatan pentsatu zenuen ttikien abesbatza osatzea?

Helduen abesbatzak harrobia behar zuela eta, aspaldi genuen ttikien taldea sortzeko asmoa, hortik aterata ea koru haundian norbait sartzen ote zen. Hori izan zen hasierako helburua, baina horrekin batera, eurek ongi pasatzea ere nahi dugu. **Zer moduz joan zen aitzineko ikasturtea?**

Hasiera hartan arrakasta haundia izan genuen eta 30 bat haur bildu ziren. Lehendabiziko kontzertua urtarrilean eskaini genuen. Zazpi kanta



TTIPI-TTAPA

Maki Urtasun, Mari Joxe Alaña eta Kristina Urtasun. Hiruak helduen koruan ibiltzen dira, baina horrez gain, Iruritako Urtasun ahizpak koru ttikiko arduradunak dira.

ikasi eta haiekin atera ginen. Ikasturte bukaeran bertze osatuago bat egin genuen, eta zahar-etxetik ere deitu ziguten kantatzera joateko eskatuz.

## Nolako erreperitorioa izaten duzue?

Denetarik eta edozein hizkuntzatan aritzen gara. Hizkuntza baino gehiago, gustatzen zaigun kanta bat kantatzea da kontua. Haurrek erraz ikasten dituzte eta iaz, adibidez, bozpasei hizkuntzatan kantatu genuen.

## Denboraldi honetan guttiago apuntatzeko zer gertatu da?

Joan den urtean, gauza

## HELBURUAK

«Musika eta letrak ikasteaz gain, bertze gauzak ere landu nahi ditugu; espresioa, adibidez: ez delako era berdinean kantatzen *Olentzero buru haundia* edo amari eskainitako kanta bat. Hori transmititzen ere saiatzen gara»

berria zenez, zer zen ikusteko hasi ziren aunitz. Guretako arras polita da, baina gustatu egin behar da eta beraien kasuan berdin. Horrez gain, eskolaz kanpoko ekintza aunitz dituzte eta 12 urtekoek haurrekin kantatzeko haundituak direla ikusten dute eta helduekin hasteko haurrak direla. Gainera ez dugu edozein modutan kantatzea nahi. Musika eta letrak ikasteaz gain, bertze gauzak ere landu nahi ditugu; espresioa, adibidez: ez delako era berdinean kantatzen *Olentzero buru haundia* edo amari eskainita-

ko kanta bat. Hori transmititzen saiatzen gara.

## Zein dira Elizondoko koru ttikiko kideak?

6-7 urtetik 12 urte arteko 15 bat haurrek osatzen dute. Elizondokoak dira gehienak, baina badira Oronoz, Gartzain eta Iruritakoak ere. Egia da Elizondon herrian dutela, eta horrek lagundu egiten duela. Herrietatik mugitzeak esfortzua eskatzen du eta ez baduzu arras garbi nahi duzula...

## Nola ikusten duzue etorkizuna?

Helduen koruak etorkizuna izanzen duelakoan gaudela, baina horretarako lan egin behar da eta haurrekin ere espero dugu izatea. Bada jendea kantatzea gustatu bai, baina abesbatzan hastera auzartzen ez dena, bertze maila bat behar dela uste duelako. Baina ez da hala, gehienok ez dakiugu deus musikaz eta afizioa izatea eta entsaioetara joatea da kontua. Kantatzea gustuko dutenak probatzera animatu nahi ditugu, haur eta helduak. Entsaioak ikustera ere etor daitezke.

## Heldu diren hilabetetan saiorik baduzue?

Helduek abenduaren 3an Elizondon kontzertua eskainiko dute. Ttikiekin oraindik ez dugu saiorik aurreikusitako, baina bertze ikastetxeekin topaketa bat egitea pentsatua dugu eta ateraldi bat ere bai.

GIZARTEA → ARGAZKI ERAKUSKETA

# Emakume baserritarren begirada argazkietan ikusteko aukera izanen da abenduan Donezteben

Nafarroako 24 emakume baserritarren argazkiekin prestatutako erakusketa herriz herri dabil

Nafarroako 24 emakume baserri-tarri ateratako 60 argazkirekin erakusketa osatu dute Rakel Rico Berako argazkilariak eta EHNE

sindikatuak. Abenduko zubian Doneztebera ekarriko dute, eta ondotik Baztanera eta Berara eramatea da asmoa.

## G. PIKABEA

Etxe barrenean zein kanpoan, bietan aritu izan dira urteetan emakume baserritarrak; aziendak gobernatzen, baratzean, etxeak txukuntzen edo otorduak prestatzen, adinekoak zaintzen... Eta beti isiltasunean. Zenbaitetan egoera zertxobait aldatu bada ere, oraindik badira horrelako kasuak. Eta horixe da, hain zuzen, *Emakume Baserritarren Begiradak* izeneko argazki erakusketan islatzen dena.

Nafarroako 24 emakume baserritarren historiak biltzen ditu EHNE sindikatuak eta Rakel Rico argazkilari beratarrak elkarlanean egindako erakusketak. Abenduko zubian Donezteben izanen da ikusgai 60 argazki osatutako erakusketa, eta ondotik Baztanera eta Berara eraman nahi da.

Argazkigintza artistikoa ikasten ari zela, proiektu bat aurkeztu behar izan zuenean, emakumea eta baserria gaiak aukeratu zituen Rakel Rico beratarrak. EHNE sindikatuak

2008an Bertizen egindako emakume baserritarren inguruko topaketara joan eta orduan eza-gutu zituen gerora argazkietan atera zituen emakumeak. Argazki horiek dira Nafarroan herriz herri dabilzan erakusketan ikus daitezkeenak, eta horietako aunitz eskualdekoak dira: Martina Ormart (Elizondo), Josefa

Loiarte (Zubieta), Marian Aranibar (Bera), Mainer Azkarate eta Igone Oteiza (Aniz), Lourdes Argain (Narbarte), Mariado Iturralde (Donamaria) eta Juana Mari Gortari (Ziga). Adin eta alor desberdinetakoak dira: esnetako edo haragitako behiak dituzte batzuek, ahuntzak edo oiloak ber-teez... Eta argazkiez


gain, emakumeen esaldi batek laburbiltzen du bakoitzaren egunerokoa.

## DENBORA LIBRERIK GABE

*Baserritarren Begiradak* erakusketan ageri diren historietako bat sortzez Zigakoa, baina Elizondon bizi den Juana Mari Gortariren kasua da. Egutero 07:00 alderajai-ki eta etxeko lanak egin

ondotik, Zigan duen baserrira joaten da, bere sortetxera. Behi gorriak ditu, haragitakoak, eta urteko sei hilabetetan kanpoan eta bertze sei hilabetetan barranean edukitzen ditu. Orain, kanpoan dituela, berezako garai hauek «opor-rak bezala direla» kontatu digu, baina «oporretan» egonik ere, egutero joan behar haiengana: «batek mina duela, urik gabe gelditu direla... Beti bada zerbait». Horrela joaten zaio eguerdira bitarteko denbora. Eta arratsaldea, berriz, baratzea, baserri inguruak eta belagaiak txukuntzen ematen du: «lan handia da garbi edukitzea». Aitzurra, aihotza eta igitaia dira bere lantresnak. Asteburuetan, senarraren laguntza izaten du baserrian, eta semeak ere ba omen du afizioa eta botatzen omen dio eskua. «Nik beti bulkatzen dut, merezi duelako. Herri batean nekazari inguruak bizi handia ematen du», dio.

Ez da, ordea, horak izaten bere lana. Seme-alaben arduraz gain,



MAITE DUEN LANBIDEA

«Herri batean nekazari inguruak bizitza handia ematen du»

Juana Mari GORTARI  
Zigako baserritarra



HERRIAN GELDITZEKO

«Herrian bizitzeko aukera bat nahi genuen eta bide hori hartu genuen»

Mainer AZKARATE  
Anizko baserritarra



ERAKUSKETA

«Emakume baserritarren lana jendeak ezagutu eta balortzea nahi dugu»

Mariado ITURRALDE  
Donamariako baserritarra



ARGAZKIA: RAKEL RICO  
Emakume baserriarren  
erakusketan dauden 60  
argazkietako bat.

etxean duen 86 urteko ama ezin baitu denbora aunitzez bakarrik utzi: «belagia garbitzera joatean ere sakelekoarekin joaten naiz eta noizean behin deitu egiten diot ongi dagoen jakiteko». Etxe barrenekoa ere tokatzen zaio Gortariri: «amak aitzineramendu guziak baditugula erraten dit, garbigailua, aspiragailua... Lehenagoko emakumeek isiltasunean lan ikaragarriak egiten zituzten baina orain ere bada lana. Etxe handiak dira eta animaleko lanak izaten dira».

Egiteko aunitz izanagatik ere, eta denbora libre sobera eduki ez arren, gustukoa du bere egunerokoa. Baserrikanpoko lana ezagutu zuen ezkongabea zela, eta baserrikoa «diferentziarekin» nahiago duela dio: «bertze libertate bat ematen du, nahiz eta aunitzetan izorratua hantxe aritzen naizen».

#### EREDU BERRIA

Hagitz bertzelakoa da Anizko Maider Azkarate gaztearen kasua. Baserriko lana da berea ere,

baina bertze gisa bateara antolatua. Egunerokoa «diferentea» izaten dute Anizko Jauregia gasnategian: «behi gasnak egiten ditugu, jogurtak ere bai, makinarako esnea egin, banaketa, garbiketa...». Gasnategiko lanak hiru emakumeren artean egiten dituzte –Maider, Ana eta Igone– eta behiez eta kanpoko lanez Maiderren bi anaiak arduratzen dira, Aitor eta Mikel.

Kontatu digunez, gasnategiko aferekin joaten zaie goiza –batzuetan gehiago ere bai–, eta arratsaldean bertzelako egitekoekin aritzen dira: paperak, ikastaroak, bilerrak, landetxeko aferak... «Gure egunak horrelakoak dira, behin ere ezin da pentsatu biharamunean zer egin behar duzun». Etxe barreneko lanak, berriz, bikotekidearen eta bien artean egiten dituzte eta hori, zenbaitetan egoera aldatu den seinale da.

Ttikitatik ezagutu izan du baserriko lana, «aitatxiki behiak zituen, eta gero aita gelditu zen. Mikel sartu zen gerora eta

#### RAKEL RICO, BERA KO ARGAZKILARIA

## «Ikusi arte ez zara konturatzen zer nolako lana egiten duten emakume baserriarrek»

### • Nolatan gogotu zitzaizun emakume baserriarrei argazkiak ateratzea?

Argazkilaritza artistikoa ikasten ari nintzela, bukaerako proiekturako gai bat aukeratu behar genuen eta nik garbi nuen emakumeari buruzko zerbait egin nahi nuela. Egun haietako batean, EHNE sindikatuak emakume baserriarren inguruko topaketa bat egin zuen eta informatzera joan nintzen. Hantxe hasi zen dena.

### • Lan zaila izan al da?

Hasieran bai, ez genekien zer nolako argazkiak nahi genituen, baina azkenean argazki asko atera eta gero lortu genuen. Lan zailena argazkiak aukeratzea izan zen, emakume ugari baitziren. Lau hilabetez ibili nintzen argazkiak ateratzen eta bi hilabete joan ziren argazkiak aukeratzen eta erakusketarako dena prestatzen.

### • Zer ikasi duzu?

Nafarroa alde batetik bertze gurutatu dut, eta ezagutzen ez nituen herriak eta 24 emakume ezberdin ezagutu ditut. Esperientzia bikaina izan da, emakumeen begiradak irudikatzeaz gain, euren esperientziak entzuteko aukera izan dut.



Rakel Rico argazkilaria

### • Nola ikusten duzu emakume baserriarren egoera?

Ikusten duzun arte ez zara konturatzen zer nolako lana egiten duten, airtortzen ez den lana. Etxeko lanak egin eta aldi berean zaharrak edo haurrak zaintzea zaila da, haientzat ez dute denbora librerik.

### • Zerbait gaineratuko zenuke?

Erakusketa ekartzean jendea ikustera joateko animatu nahi dut eta denen gustukoa izatea espero dut. Eta EHNERi eta emakume guzietan eskerrak eman nahi dizkiet aukera honengatik.

Aitor ondotik». Bera, al-diz, ikasketak akitu zituenean sartu zengasnategian, eta kontent dagoela aitortu digu: «Herriari bizitzeko aukera bat nahi genuen, herriaren edo zonaldean ez dago lanerako aukera haundirik, eta landetxea eta behiak bagenituenez, bide hori hartu genuen». Baserrikan bizitzeko bide berriak jorratu izanaren adibide garbia da Jauregia gasnategikoa; haize berriak ekarri zizkioten baserriari, eta etorkizunera begira ere, badute segitzeko asmoa.

#### EMAKUMEAREN LANA BALORATZEKO ESKARIA

Hiru helburu argirekin prestatu dute erakusketak eta Mariado Iturralde EHNEko kide eta Dona-

mariako baserriarrena eman dizkigu horien berri: «alde batetik, emakume baserriarren lana jendeak ezagutzea eta baloratzea nahi dugu; bertetik, zerbitzu falta hori salatu nahi dugu eta azkenik omenaldia egin nahi diegu lehengo baserriko emakumeei».

Izan ere, isiltasunean baina lan handia egin dakoak dira emakume baserriarrek, eta behar bada egin dutena sobera baloratu gabea izan da. Azkaratetaren kasuan, gauzak aldatu egin dira, eta berdintasunean lan egiteko modua bilatu dute. Iturraldearentzat, ordea, Azkaratetaren kasua «berezia» da. «Jende gaztea bertze mentalitate batekin ari da, eta bertze nekazari-

tza mota batez ari gara, hainbertze loturarik ez duena. Baina zonalde honetako baserri aunitzetan adineko aunitz dago baserrietan eta hori eta etxe barreneko lanak ere emakumeek egiten dituzte ia %100ean. Nire kasuan, azken lan batzuk egiten ditut eta anaiak bertzeak, baina ama zaindu behar dut eta otorduak ere prestatu behar ditut». Horregatik, uste du emakume baten gustura lan egiteko zerbitzuak falta direla.

Kasu bakoitza diferentea da, baina denak dira emakumeak eta denek dute baserria ogibide. Euren begira hurbiletik ezagutzeko aukera ederra da *Emakume Baserriarren Begirada* erakusketa.



**Nire txanda**  
Luis GARDE

## Himno nazionala

**Z**ein da, irakurle agurgarri, zure himno nazionala? Badu letrarik? Tente jartzen zara entzuten duzun aldiro? Hunkitzen zaitu?

Nire aldetik, ez dakit noiztik ez dudan abestu Eusko Gudariak. Tira, ez hainbertze, duela urte bateko Doneztebeko manifestazio antifaxista bukatzean kantatu genuen; hori bai, nik ukabila altxatu gabe, eskuak sakeletan nituela, eta zertxobait joko kanpo egotearen sentipen batekin. Espainakoa, bertzalde, nire nerbioetarako gehiegitan entzuten dut telebistan, inperioaren kirolarien lorpe nei esker (klenbuterolarekin edo gabe, jakiterik ez dago).

Hona hemen zein himnorekin nagoen eroso. Due-la kasik 40 urte, John Lennon abestilari mitikoak herrialde birtual bat sortu zuen; Nutopia izenekoa. Lurrik gabe, borondatezko hiritarrek bakarrik. Nixonen administrazioak AEBtik bota nahi zuenez, Lennonek estatu honen inmunitate diplomatikoa aldarrikatu zuen kanporatua ez izateko. Kasurik ez. Baina goazen harira. Nutopiaren bandera, zuria. Nutopiaren himnoa: isiltasunezko hiru segundu. Himno hau kantatu behar dut goizero.

## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Argi izpia zulo beltzean

**B**i hilabete lurpean pasatu ondotik pentsatzekoa da Txileko meatzariak igogailu berezian goiti argia ikusi zutenean sentitu zuten poza. Hilabeteak ez ezik urteak daramazkigu hemen zuloan eta azken aldian argi izpia ageri dela dirudi. Baina honek igogailuaren zabalera du eztabaidagai, hark lur gehiago botatzen du zulora eta bertze haiek meatzari batzuk lurpean utzi nahi dituzte.

## Nabarmentzekoak



**Marcelino BERGARA**  
Pilotari haundiaren heriotza

Urriaren 10ean hil zen Donostian Bergara I. Etxalarko pilotari haundia, 67 urte zituela. Espainiako binakako txapelketa irabazi zuen 1962an eta Munduko txapelkun ere izan zen.



**Unai ONSALO**  
Munduko txapelkun Pauen

Aresoko pilotariak buruz buruko Munduko txapelketa irabazi zuen Pauen, Mexikoko Medinari irabazita. *Mololo* Irigoien lesakarrak ere urrezko domina lortu zuen eskuz binakakoan.



**Javier MARIEZKURENA**  
Doneztebeko kamioi gidaria

Orain arteko denboraldi onena egin du Truck Navarra taldeak. Doneztebeko gidariak Sponsors Challenge txapelketa irabazi du lehen aldiz eta 11. izan da Europako txapelketan.

## Atzera begira → 1991.11.07 / TTIPI-TTAPA 73. zbk



## Bularretako minbiziaz Juan Jesus Larraz ginekologoarekin

Ginekologia, emakumearen osasuna eta gaixotasunak hizpide hartuta Leitza-ko seme den Juan Jesus Larraz ginekologoari elkarrizketa egin zion TTIPI-TTAPA-PAK duela 19 urte. Letra handitan parartzeko honako esaldi hau aipatu zuen: «Ginekologi errebisioa egin beharko luke urtero emakumeak. Hau ez da brometako gauza: 14 emakumetatik batek bularretako minbizia izanen du bere bizian. Hori datu estadistikoa da». Halere, bertze datu baikorragoa ere eman zuen: «bularretako minbizia, 10 kasuetatik 9 senda daitezke gaur egun, garaiz, tenorez harrapatuz gero».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemalleak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Konxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia, Patxi Dutournier...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

## 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Espainiarekin dena normal

Mikel RODRIGUEZ

Euskal Herrian normaltasuna da nagusi gaur egun, batez ere, 2009an gure mendebaldera dauden hiru probintzietan egin ziren hauteskunde normalak alderdi normal batek irabazi zituenetik. Normala ez zen sektore politiko bat epaitegi normalek hauteskunde lehiatik at utzi zutenetz, Patxi Lopez historiako lehenbiziko lehendakari normala bihurtu zen, eta herriak aitzineko gobernu jeltzaleari erazutako politika anormalak normaldu zituen. Telebista publikoa eguraldiko mapa normala erabiltzen hasi zen, bandera normalak, hori-gorri kolorekoak, non-nahi paratu zituzten, eta kirol selekzio normalak berriz ere hiru probintzietan jokatzerantz itzuli ziren. Normala ez zen hizkuntza sustatzeko jarduerari diru-laguntza normalak zuzendu zizkien lehendakari normalaren gobernu normalak, eta, bide batez, normala zen hizkuntza jakitea eskakizun nahikoa bihurtu zen hainbat lanpostu publikotarako. Kartelak, pankartak, aldarrikapenak eta ekintza alternatiboak karrikan ikusteak ez luke normala izan behar gobernu normalean zegoen alderdi normalaren iritzi, hortaz, Polizia bidali zuen normaltasuna ezartzera. Polizia aunitz egotea eta ikustea normaltasunaren sinonimo da. Arazo identitarioak zirenak, arazo normalak dira orain, normaltasuna erabiliz normalizatzen direnak. Teleberrietan Majadahondako auzune batean gertatu den ttikikeriaren baten berri izatea normala da orain, baina Zangotzari buruz solasean ari garenean Euskal Herria aipatzeak, berriz, normaltasuna xehetzen du. Txirrindularitza talde bati Tourrean Espagne ikurra eramanaraztea ez da arazo identitarioa, normaltasuna berrezartzea baizik. Barakaldoko batek Senpere non dagoen ez jakitea gauza normala da, baina Irungo batek Andaluziako probintziak zeintzuk diren ez jakitea ez da inoren buruan sartzeko. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan hasi dira ikasten: gero eta Espainia gehiago, gero eta normalagoa da dena. Nafarroan bada denbora puska bat hori irakatsi zigitela.

«Barakaldoko batek Senpere non dagoen ez jakitea gauza normala da, baina Irungo batek Andaluziako probintziak zeintzuk diren ez jakitea ez da inoren buruan sartzeko. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan hasi dira ikasten: gero eta Espainia gehiago, gero eta normalagoa da dena. Nafarroan bada denbora puska bat hori irakatsi zigitela»

### Xalbadorren eta Xanpunen omenez Urepelen maiteminez, bakarminenez

Ainara MAIA URROZ

Asteburuan Urepelen egon naiz, Xalbadorren eta Xanpunen omenezko ekitaldiAn. Xirimiri goxo batez ziztu bizian iritsi nintzen «gasna-bidean», eta berandu... jadanik hasi zuen Idazle Eskolako ilunabar literarioa (...). Eta odolari mintzatzen utzi nion larunbat arratsaldean. Bere mintzoa, nire ahotsa Urepelen, ahots sentibera zuen herriko semearen dohaina: bertsoz poesia kantatzea, edo poetikoki bertsoak irutea. Dohaina zuen bihotzetik mintzatzeko fedez, eta poesiak elkartu gintuen. Ilunabar poetiko hura amaitzeko, Benito Lertxundiren *Nigarra Begian* kantua abestu genuen. (...) Biharamun goizean, xirimiria lagun, Xalbadorren bordara mendi-ibilaldia antolatuz zegoen, eta han abiatu ginen jende-multzotzat mendian gora. Xalbador etxea pasa eta gora... azkenean, halako batean iritsi ginen «Ene mendiko maitea» etxolara. Han sentitzen zen Xalbador bertsolari poeta gustoen, eta hantxe kantatu genion Xabier Leteren *Nun hago?*... hantxe irakurri nituen Xalbadorren bertso bikain eta hunkigarri batzuk etxola hari kantatuak... eta hantxe zegoen idatzirik *Xalbador 1920-1976*. Ni sortu nintzen urte berean hil zen bera. Etxola haren inguruan zurrumurru isil bat nabari nuen eta laino zuria gehiago sartzeko ari zen mendi zoko hartan. Ordura arteko ximiri arina euri bilakatzen ari zen, eta ordu zen mendian behera abiatzeko, galdu nahi ez bagenuen bederen. Marmarra jendearen ahotan, eta asotsa ene belarrietan, behorren ezkilak eta urtxintxa hila bide bazterrean. Xalbadorren barneak eta ene erraiak bat egiten zuten gurutzearen doloretan, aunitz maite duenak aunitz sufritzen baitu. Nigarra eta irria nahasten dira, eta horrek sortzen duen oroiminak barnea inarosten dit. Barneko zurrumbilo horretan eta kanpoko jendearen hotsen artean maldan behera, laino artean, euripean bixi-bixi joan ginen, galtzeko beldurrez, Urepel helburu. (...) Xalbador ere ez zen hagitz maitatua bere herrian, Urepelen, baina aunitz maite dut bere sentiberatasuna. Nik ere delikatu baitu ene bihotza, amodioa gauza tristea izateagatik, eta ulertzen dut bertsolari-poetaren dolorea, ulertzen dut zergatik hartu nahi zuen betiko sosegua, eta zergatik nekatu zen haren bihotza sufritzeaz. (...) Lehengo ametsak berri nahiaren aritzen gara amets berriak egiten segitzeko. Nire bihotza ere nekaturik dago aunitz maitatzeaz, eta behar bezainbeste ez jasotzeaz. Baina bizi da oraindik ene bihotza. Damu naiz maitemindu izanaz, baina ezin dugu aukeratu norekin maitemindu, eta niri maitemintzeak bakardadea ekarri zidan. Esan nion begietara begiratuz maite nuela... berak, ordea, barre egin zidan eta maitasun inkondizionala eskaini zidan ni abandonatuz, hegan egiten utzi ninduen... nik berearekin batera egin nahi nuen hegan, ez bakarrik. Eta orain banoa. Heldu den astelehenean Txekian egonen naiz agur-besarkadarik gabe, esan gabekoak airean utziz... itzuliko naizelako, beharbada?

## Irakurleak mintzo

Torturaren  
inguruanGaizka SARASOLA  
Igor eta Mattinen etxeakoak

Kasik hiru urte pasatu dira Igor eta Mattin torturatuak izan zirenetik. Ez ziren gure eskualdean torturatuak izandako lehendabiziko lagunak izan, eta tamalez, urtea bukatzerako beraien ondoren bertze hirurogeita bi euskaldunek ere torturak jasan izana salatu zuten. Eta geroztik, bertze hainbat.

Kamutsak dira inkomunikazio garaian etxe-koek sentitzen duguna adierazi ahal izateko azalpen guziak; alferrikakoak hitzak. Zer erranik ez beraien egizian bizitako adierazteko. Guri behintzat ez digute kontatu. Ezin dute kontatu. Ezin da kontatu. Eta hori, gainean eraman beharreko zama da guretzat (harría), jakin badakigulako, egoerarik beldurgarriena imajinatuta ere, errealtate-tik urruti geldigaitzkeela. Torturaren helburua norbanakoa deuseztea delako, pertsona objektu bezala tratatuz, haren duintasuna eta izaera ezabatzea. Eta horretarako min handia egin behar da, min handia egin nahi izan behar da. Baina orain, kasik hiru urteren ondoren, erran dezakegu Igor eta Mattinen kasuan ez dutela lortu, beraienak zirenak direla orain ere erakusten duten izaera eta nortasuna. Hala eta guztiz ere, atxiloketaren

ondorengo lehen bisi-tan beraien begi hezeetan ezkutatu ezin izan zizkiguten zauriak gogoratuz oharzten gara, beraien bai badutela harri haundizar bat beraienkin betirako.

Baina harriak izan, herritar guziok baditugu gainean; harri ttiki txarrak oinetakoetan sartuta. Eta ez ditugu gainetik kenduko torturak irauten duen bitartean. Nolabait ere gure ardura ere badelako. Herritarrak garelako, gure hitzen eta ekintzen bitartez, agintariak zuzen eta bidezkotzat jotzen ditugun jokabideetara makurrarazi ditzakegun bakarrak. Estatuak eta erakundeak beraien interesen alde edo zer egiteko gauza direlako ekin behar dio jendarteak mugak estutzeari. Baina zoritxarrez, aunitzetan oinetakoetako harrietara ere ohitzen gara. Deserosoak dira, batzuetan min egiten dute, baina denbora ez galtzeagatik beraienkin ibiltzen hasi eta oinetakoen barrenean ditugula ere ahazten zaigu maiz.

Ez dugu eskatzen oinetakoetatik harriak hartu eta inoren burura botatzerik, ez dugulako nahi mendekurik, eta egia errateko justizia ere ez dugu eskatzen, berarengan ez dugulako gehiegi sinesten; ez bederen, epaitegietan banatzen den justizian, botereari hain loturik eta jendearengandik hain urruti dagoen horretan. Gure nahi eta desio bakarra, gure etxeetan bizi-tutakoa bertze inon ez



**Bota bertsoa**  
Kristiñe TXOPERENA • Neurria: Hamarreko handia

**XILABA txapelketa**

Baxe Nabarre, Xibero eta Lapurdiko txapelketa mendi aldetik kostalderaino ekialdeari buelta nik, bertsozale naizen aldetik, egin nahi dut gogoeta azaroaren hamahirurako izan kiniela beteta Donibanera hurbil zaitezte bi urtetik behin da eta.	Horrenbertzeko emozioa sortu ohi duen lehiari oholtza gainean lagunarteko gogoeta zaio nabari bakarrak jaunzten duen txapela baita aunitzentsat sari egi osoa erakusteko entzun nahi ez duenari jartzen dituzten mugen gainetik bizi garelako kantari.
--	--

errepikatzea izaten da. Eta zoritxarrez, berriz gertatzen denean, hura azkena izatea. Eta bide batez, denon artean oinetakoetatik harri-koxkor ttikiak kentzen hasten garelako ikustea, bakean eta askatasunean ibiltzen hasteko hurbilago egonen garen seinale izanen delako.

Horregatik, Igor eta Mattinen atxiloketan parte hartu zuten 10 guardia zibilei Donostian eginen zaien epaitegietan harria eginen diren mobilizazioetan parte hartzea dei egiten dizuegu. Urriaren 28an, ortzegunean, 12:00etatik 13:00etara paroa herrian eta kontzentrazioa Donostiako epaitegietan atarian. Urriaren 30ean, larunbatean 17:30ean torturaren kontrako manifestazio nazionala Donostiako Antiguako tuneletik abiatuta.

Torturarik ez! Inpunitatearen aurka!

Igandean denak  
Berara!Arantza, Bera, Etxalar,  
Igantzi eta Lesakako  
Euskara Batzordeak

Igandean, urriak 31, Mankomunitatearen Eguna izanen da Beran. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 20 urte bete ditu aurten, eta urtemuga garrantzitsua iruditu zaigu egindako bidea gogorazteko, eta egiteko dagoena aldarrikatzeko. Zailantzarik gabe, 20 urteotan mankomunitateak eta, batez ere, batzordeek, lan aunitz egin dute Bortzirietan euskararen alde. Mankomunitateak soberan erakutsi du tresna egokia dela gure herrietan euskara normalizatzeko, eta igandean horixe aldarrikatu nahi dugu.

Familiarekin eta lagunekin egun pasa ederra egiteko modua

eskaintzen dizuegu, goizetik hasi eta arratserraino ekitaldiz beteriko egitaraua osatu baitugu. Bereziki animatu nahi zaituztegu irudiaren ekitaldian parte hartzera. Mankomunitatearen logotipo erraldoia osatu nahi dugu, eta horretarako 400 lagun behar ditugu. Eta hori osatzen dugun bitartean, airetik irudiak hartuko dituzte. la logotipo ederra osatzen dugun!

Gero, martxa jendetsua eginen dugu Matzadatik Altzateraino, eta han Mankomunitatearen 20. urteurreneko ekitaldia egiten dugu. Ondotik, bazkaria izanen da Altzateko frontoian; txartelak herri guzietan daude salgai. Arratsaldea ere musika, zozketaz eta bertzelako ekitaldiz ongi hornitua egonen da.

Badakizue: hitzordua Beran, Matzada futbol zelaietan, 11:00etatik aitzinera!!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Euskaltzaindiaren asmoa zen Gipuzkoako Diputazioan zabaltea bulegoa, eta hanxe hasi nintzen lanean. Batere uste gabe hasi nintzen Euskaltzaindian eta bertan aritu nintzen 2000. urtera arte. Ez nintzen 1967an Arantzazun izan, saltsa izan zela banekien, baina ez nintzen hura neurtzeko gauza. Tartean euskara bazen, bost axola zitzaizun gainerakoa».

**Maria Pilar LASARTE**  
Leitzarra  
ARGIA, 2010.10.17

«Gidariak gasolinaz betetzen dituzte deposituak eta gainera, gasolinaren 20 eta 25 litroko ontziekin etortzen dira, badaezpada ere. Igoera nabaritu egin da egun haue-tan –Frantziako erregaiaren faltaren ondorioz– (...) Bezeroak urduri samar daudela ikusten da».

**Egoitz GOROSTERRAZU**  
Iturendarra, Dantxarineako gasolindegiko langilea  
D. NAVARRA, 2010.10.20

**11 galdera labur**

**Nola definituko zenuke zure bu-  
rua?**

Pertsona alaia eta ireki bat bezala.

**Konfesatzen ahal den bizio bat?**

Ez dut aparteko biziorik.

**Zein afizio dituzu?**

Batez ere lagunekin egon eta besta egin, baina gustukoa dut kirola egi-tea ere, ehiza, kontzertuak ikusi...

**Zergatik aukeratu zenuen inge-  
njaritza?**

Betidanik gustatu izan zait meka-nikaren mundua eta lan irteera nahi-ko ona zuenez, aukera ona iruditu zitzaidan, baina gaur egun, oso gaizki dago lana aurkitzea.

**Galesen, zer botatzen duzu  
gehien faltan?**

Familia eta lagunak, baina bai-ta janaria ere, hemen nahiko gaizki jaten da eta.

**Galestik bueltan zer egingen du-  
zu?**

Lana bilatzen hasi.

**Zer du Galesek Narbartek ez due-  
na?**

Paisaiak, hemen oso paisaia politak dau-de. Dena berde-berdea dago, eta inguruko kostaldeko herrietarajo-aten baza-

ra, sekulako gazteluak daude.

**Ingelesaz gain, galesa ikasteko  
asmorik bai?**

Nahiko lan dut ingelesarekin, gale-sa ikasten jartzeko. Galestar bate-kin bizi naiz, eta batzuetan hitzen bat galesez nola esaten den galde-tzen diot, eta oso zaila iruditzen zait.

**Ba al du antzekotasunik galesa-  
ren egoerak euskararenarekin?**

Bai, asko. Euskara bezala, galesa desagertzen ari zen, baina azken urteotan asko berreskuratu dute eta ia jende guztiak ba-daki hitz egiten, nahiz eta gero kalean ia ez den erabiltzen.

**Besta on bat bo-  
tatzeko toki bat?**

Iruñeko sanfermi-nak.

**Amets bat?**

Konpetizioko auto-en munduan lan egitea.



**Diego PEREZ → Narbarteko gaztea**



**ESTETIKA | 948 631 448**



Gorputz exfoliazioa | Elektroestimulazioa | Txokolaterapia

**ORDUTEGI BERRIA**

astelehena, asteartea  
ortzeguna, ortzirala  
**09:00-17:30**  
asteazkena  
**15:30-19:00**  
larunbata  
**08:00-13:00**



**Bidasoa, 8 BERA | T. 948 63 01 77**

# BORTZIRIAK

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

## Dena prest dago igandeko Euskara Mankomunitatearen Egunerako

Egun osoan izanen dira ekitaldiak

### TTIPI-TTAPA

Ospakizun eguna izanen da igandean, urriak 31, Beran eginen dena, Bortziriako Euskara Mankomunitatearen 20. urteurrena ospatuko baita, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako Euskara Batzordeek antolatuta.

11:00etan Mankomunitatearen **logo erraldoia** osatuko da



Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako Euskara Batzordeak

ARGAZKIA: BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Euskara Mankomunitatearen Eguneko kartela.

Matzada futbol-zelaian. 400 lagun behar dira horretarako eta herrita-

rrei parte hartzeko deia egin zaie. 12:30ean **martxa jen-**

**detsua** eginen da Matzadatik Altzateraino. 13:00etan Mankomuni-

tatearen 20. urteurreneko **ekitaldia** eginen da Altzaten. Bortziriako trikitilariak, dantzariak, txistulariak, kantariak, bertsolariak, bandek, abesbatzek... parte hartuko dute.

14:30ean **bazkaria** eginen da Altzateko frontoian (txartelak hartzeko azken eguna asteazkena, urriak 27).

16:00etan **haurrentzako tailerrak**, zozketak, Xutik taldearen **musika** doinuak, *Piano bat bertsotan kantu saioa*... izanen dira.

### ANTOLATZAILEAK:

INTZURI optika

OREKA dietetika eta nutrizioa,

KATTAGORRIA mertzeria lantzeria,

ONINART kamixetak,

BIXKIAK arropadenda,

PANPINA haur arropa denda,

BARCELO bidalak,

TELLETXEA argazki-gintza,

TXINELKA zapata denda,

ORTZADAR arropa denda,

ANTXORDOKI ahizpak

### LAGUNTZAILEA

Lesakako udala



## Udazkeneko Azoka Lesakan

Azaroak 7 Igandea  
Sarrerakin oparia

Ordutegia: 10:00tik 19:00ra  
lekua: lesakako frontoia

**KIROLA** → GURE TXOKOA ELKARTEAK ANTOLATUTA

# Larungo bigarren Mendi Bizikleta Igoera egingen da azaroaren 1ean

8,9 kilometroko ibilbidea egin beharko da

## TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, aurten bigarren, Larungo Mendi Bizikleta Igoera egingen da azaroaren 1ean, astelehenarekin. Joan den urtean bezala, 8,9 kilometroko ibilbidea egin beharko da eta batzaz bertzeko malda %9,5ekoa izanen da; gehienekoa %29koa. Goizean 10:00etan abiatuko dira txirrindulazaleak lamoteneatik, eta bi ordu azpitik ailegatu beharko dute helmugara. Federatua izatea ez da nahitaezkoa izanen.

## IZEN-EMATEA ETA SARIAK

Izena egun berean eman daiteke, 08:30etik aitzinera lamotenean -10 euro-. Lanak arintzeko, aitzinetik ere apunta daiteke, datuak [guretxokoatxirrindularitza@hotmail.com](mailto:guretxokoatxirrindularitza@hotmail.com)-era bidalita.

Bortz sari banatuko dira: 200 euro lehenarenentzat; 100 euro bigarrenarenentzat; 75 euro hirugarrenarenentzat; 50 euro laugarrenarenentzat eta 25 euro bosgarrenarenentzat.

Gainera, 41 minutu eta 15 segundoko iazko errekorra hobetzen duenak Errotazar harategiko lote bat hartuko du.

## GURE TXOKOAREN BLOGA

Bazkideei elkarteko berriak zabaltzeko Internetarako saltoa egin du Gure Txokoa Elkarteak ([guretxokoaelkartea.blogspot.com](http://guretxokoaelkartea.blogspot.com)). Horrez gain, futboleko kamisetak salgai jarri dituzte. Haurrenak 35 eta helduenak 45 euro balio dute eta ekipazio osoa nahi bada, haurrek 10 euro gehiago eta helduek 15 gehiago ordaindu behar dute. *E-mailez* edo ortzegunetan 19:30ean lamoteneara agertuz lor daitezke.

## Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 5ean hasiko da Euskara Batzordeak antolatutako XII. Kafe-Antzerki Zikloa. Lehen saioa Bidaxka ostatuan izanen da, eta Gilkitxaro taldeak *8begi* antzezlan eskainiko du. Hilaren 12an, Ainhoa Alberdi & Iraia Eliasen *Eta Karmele?* izanen daikusgai Lixioia ostatuan. Eta azaroaren 19an, *Klown-tuz, mendia!* ikuskizuna eskainiko du Zurrumuru taldeak Gaztetxean. 22:00etan hasiko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Ikastolako neska-mutikoak estropadetan

Arrauna ezagutarazi eta bultzatzeko Euskal Herriko Ikastolen Kooperatibak sortutako ikasarrauna proiektuan parte hartu dute aurten ere Labiaga ikastolako ikasleek, Lesakako Tantarumairu ikastolakoekin batera. Urriaren 12ko lehorreko saioaren ondotik, biharamunean, Lekeitiotik etorritako monitoreekin ibili ziren Bidasoan arraunean. 5. eta 6. mailakoak hasi zuten eguna, Ikastolatik bizikletaz etorri eta gero, bi ontziak ibaira jaitsi zituzten, palak hartu eta txalekoak jantziz... uretara! Ordu eta erdiz ibili ziren, patrioiak branka, estriborra, ababorra, ziaboga eta abar erakutsi bitartean. San Migel zubitik gainontzeko ikasleek animoak eman zizkieten. Bukatzen zenaren penarekin baina gustura, ontziak eta txalekoak Lesakakoei pasatu zizkieten. Eguerdi aldera, DBHkoak ere bi taldetan banatu eta Lehen Hezkuntzako gisa ibili ziren, batzuk Hondarribiaren eta bertzeak Urdaibairen alde.

## Defizita murrizteko

12/2010 Foru Legean oinarrituz, defizit publikoak murrizteko udal langileei eta alkateari soldatak murriztea erabaki du Udalak, legeak dioen

portzentajea aplikatuz.

## Esloveniako koroaren saioa

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren atarian, ur-

tero Berako Abesbatzak antolatzen duen kontzertua, aurten Esloveniako Orfej Choir koroak eskainiko du. Azaroaren 1ean izanen da, 19:30ean, Kultur Etxean.

# Bi familiako etxebizitza eraikitzeke lur eremua salgai paratu du Udalak

Udalarena den llekuetako UU16 unitateko lur-eremua salgai egon da berriki arte. 797,13 metro koadro dituen eta 415,38 metro koadroko eraikigarritasuna duen partzela horretan, bi familiako etxebizitza bat egiteko aukera eskaini da. Kokapen eta ezaugarriak tarteko, eremu horrek Udalarentzat interes berezirik ez duela ikusi zen, eta salduta aterako litzatekeen diruarekin Udalarentzat egokiagoa den bertze proiekturen bat egin nahi da. Horien artean interesgarrietakoa zahar etxearen ondoko lurra erostea da. Udal Planean eremu berde izendatua

dagoen horretan, zati handi bat Udalarena da eta bertze zatia erosiz, eremu berde zabal bat egiteko aukera dago zahar etxea eta Iturlandeta auzoen artean. Erreka bazterretik ibilbide bat ere egiteko aukera mahai-gainean dago. Partzela enkante publikoan atera zen eta astelehen honetan bukatzekoa zen eskaintzak aurkezteko epea. Unitate honetan urbanizazio proiektua dagoeneko onartua dago nahiz eta oraindik ez diren lanak hasi. Lanak ez badira epe batean hasen Udalak bere gisa egiteko aukera aztertuko luke.

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**BERA**  
Zere ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinoera, armiarma, kukuxu...) eta orratzi xagutzar garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipen tratamenduak  
**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

**ERREKALDE**  
PLATER KONTRAKTAK  
PINTAK  
KANTAK  
TFNOA: 948 636 259 • BERA

## LESAKA

MOBILIZAZIOAK → IGOR PORTU ETA MATTIN SARASOLA ATXILOTU ZUTEN HAMAR GUARDIA ZIBILEN KONTRAKO EPAIKETA DONOSTIAN

# Torturaren kontrako mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dute

Ortzegunean ordubeteko paroa herrian eta larunbatean manifestazio nazionala Donostian egingen dira

**Aitor AROTZENA**

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren atxiloketan parte hartu zuten 10 guardia zibil epaitzen ari dira aste honetan Donostian. Bi lesakarrak egun bakarrean, 28an, izanen dira Donostian eta orduan kontzentrazioa egingen da epaitegiaren atarian eta herrian ordubeteko paroak 12:00etatik 13:00etara. Larunbatean Donostian manifestazio nazionala antolatuta da. Horren berri eman zuten urriaren 20an Herriko Etxean bi lesakarren senide eta lagunek eta azken urteetan atxilotuak izan diren pertsonen. Beraiekin batera, Berako eta Etxalarko alkatea eta atxiloketak gertatu zirenean herriko alkate zen Koldo Erkizia Eako zinegotzia izan ziren.

Zaine Rekondok 2008ko urtarrilaren 6an Arrasaten gertatutako atxiloketa gogoratu zuten, eta «biharamonera-ko Igor Portu Donostia-

ko Ospitalera eraman zuten egoera larrian, kolpeak, hiru saiheks puskatuak, birika zulatuak... zituela». Medikuntzaren arabera, «nabarmenak dira torturatua izanaren zantzuak». Sarasolak eta Portuk tortura salaketak jarri zituzten eta Donostiako epaitegiak ikerketazabaldutzen. Baina tortura kasu hauek ez direla isolatuak ere aipatu zuten, «azken 30 urteetan 7.000 herritar baino gehiago izan gara espainiar komisaldegietan torturatuak, estatuaren babespean eta inpunitate osoz».

Koldo Erkizia aipatu zuenez, Udalak epaiketari akusazio partikular gisara aurkezteko saiakera egin zuen, nahiz eta azkenean epaileak ez zuen onartu. Inkomunikazio neurriekin «behin betikoz bukatzea eskatzen dugu berriz ere, atxilotuen eskubideak bermatuak izateko modu bakarra baita».

## Udazkeneko Azoka Merkatarien eskutik

Zerbitzuen Elkarteak Udalaren laguntzaz antolatuta Udazkeneko Azoka egingen da azaroaren 7an, 10:00etatik 19:00etara frontoian. Euro bateko sarrerarekin oparia izanen dute frontoira sartzen direnek.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Senideak, azken urteetan atxilotutakoak eta udal hautetsiak, mobilizazioen aurkezpenean.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## Aurora Sanz eta Susana Muneta garaile Arkupe elkartearen paleta goma txapelketan

Arkupe elkarteak antolatzen duen emakumezkoen paleta goma txapelketako finala jokatu zen urriaren 16an. Lehenik, hirugarren posturako lehia jokatu zen eta Iera Agirre leitzarrek eta Saioa Aristorenak erraz hartu zituzten menpean Eluska eta Estitxu, 30-3 irabazi baitzuten. Ondotik, final nagusian, berdintasun gehiago izan zen, baina azkenean Aurora Sanz lesakarrak eta Lizarrako Susana Munetak, 30-23 irabazi zieten lanira eta Rebekari.



EHIZA → USATEGIAK

## Usorik gabe baina giro ederrean joan da Usategietako Igandea

Zozketako hirugarren saria oraindik agertzeke dago

### Irune eta Itsaso

Eguraldiak lagunduta, Usategietako Igandea goizean jende andana ibilizen Usategietan, nahiz eta sareetan nola ehitzatzen duten ikusteko aukerarik ez zen izan. Arratsaldean Patxin eta Potxinen ikuskizunera ere haur aunitz hurbildu zen eta dantzaldiarekin eman zitzaion akabera egunari.

Urtero bezala, zozketa ere egin zen eta lehengo saria, 12 uso bizirik, Garbiñe Maiak eman zuen. Bigarren saria, bi lagunentzako afaria, Jesus Arribilagak irabazi zuen. Kanpin dendaren irabazlea oraindik ez da agertu; zenbakia hauxe da: 4.935. Boleto

hau duena Altxatara hurbil dadila.

### AMAIA ZUBIRIAREN KANTALDIA

Urriaren 15ean Amaia Zubiriak Elizan kantaldia eskaini zuen Edorta Murrak gitarrekin lagunduta. Ordu bat eta erdiko saioa izan zen eta denetik entzuteko aukera izan zuten bildutakoek; kantuz zaharrak, bere kantuenak... Ekitaldi arrakatsua izan zen antolatzaileen erranetan.

### TORTILLA TXAPELKETA

Bertze urte batez, gazteek antolatuta patata tortilla txapelketa izan zen urriaren 16an. 11 hirukotek parte hartu zuten eta irabazleak Amaia Agirre, Beñat Irazoki eta Aintzane Iturria izan ziren. Espai-mahaia hiru ostatuetakoa nagusiek osatu zuten. Giro ederrean joan zen ilunabarra eta La Basquen gazte-



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

Patata tortilla txapelketan parte hartu zuten gazteak.

en afariarekin eman zitzaion bukaera egunari.

### Guraso elkarteko urteko batzar orokorra

Urriaren 20an egin zuen urteroko Batzar Orokorra Guraso Elkarteak. Solastutako gaiak hauek izan ziren: aitzineko urteko akta, urteko kontuak, asesoria aldaketa, Nafarroako Kutxako proiektuak, ikastaroak eta programatutako ekintzak, junta berritzea eta kuota ordainketa.

Juntatik atera dena Arantxa Zubieta izan da eta bere ordezkari Maite Iri-sarri da kide berria. Honetaz gain, eskola kontseilurako, bozketa bidez, gurasoen artean bi hautagai eta ordezkari bat aukeratu ziren. Axun

Maia eta Estitxu Etxarte izan ziren aukeratuak eta Nuria Baiona hauen ordezkari gisa. Abenduan egingen diren eskolako kontseiluko hauteskundeetan bi hauek parte hartuko dituzte.

### Bertso afaririk ez

Euskara Batzordeak barkamena eskatu du oraingoz bertso afaria bertan behera gelditu delako. Berrito antolatzen bada lerro hauen bitartez adieraziko da.



ARGAZKIA: EGOITZ OLAGARAI

### Hasi dira onddoak

Udazkenarekin batera onddoak ere ateratzen hasi dira. Argazkiko honek bi kilo pasatuak ditu eta txapelak 30-35 zentimetroko diametroa. Egoitz Olagarai aurkitu zuen urriaren 17an.

**USOA**  
nekazari kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**ZOANSA**  
SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi  
**MARKA GUZIEK KONPONKETA**  
Banaria, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (samiara Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

**ERROTAZAR**  
harategia  
Bertako produktuek  
Eztegara, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**zalain**  
JATEETxea - RESTAURANTE  
Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com  
zalain

# IGANTZI

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

## Emozioak lantzeko proiektua paratu nahi dute martxan eskolan

Gaiari buruz bilera egingen da azaroaren 2an

### TTIPI-TTAPA

Emozioak landuz, proiektu berritzailea landu nahi dute ikasturte honetan eskolan. Zehazki, emozioak ezagutu eta menperatu; errespetua eta tolerantzia bulkatu; kontzentrazioa eta erlaxazioa landu eta arazo en aitzinean egoki jokatuz; frustrazioarekiko tolerantzia maila igo; lanarekiko motibazioa eta ahalegina haunditu eta enpatia garatzea dira helburuak.

Emozio Hezkuntza Eskolan izenarekin, iaz irakasleek egindako ikastaroa da orain ikasleekin martxan paratu nahi dena. Horretarako proiektua prestatu eta Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Sailean aurkeztu zuten. 1.500 euroko dirulaguntza hartu zen horretarako, baina proiektuaren aurrekontua 12.000 eurokoa izanda, ikusteko dago oraindik aitzinera eramanen den ala ez.

Proiektu honekin hainbat ekintza egin nahi dira: yoga klaseak eskola orduetan, sormen margoketa, multikirola, emozio hezkuntza lantzeko saioak... Guraso Eskola ere abian paratu nahi da, gurasoak emozio munduan gehiago inplikatzeko.

Ekimen honen inguruko informazio gehiago emateko azaroaren 2an, 16:15ean hitzaldia egingen da eskolan.

### Baserrietako bideak

Irisarri, Berrizaun, Unanu, Frain eta Piedadeko auzoetako bideetan konponketak egingen ditu Udalak. Zehazki, Mendibil, Argatabereko

etxea, Iñarburu, Donjosenborda, Garaikola, Isasmendi, Akotrin eta Talaia baserrietara doazen bide zatietan. 115.000 euro inguruko aurrekontua duten lanak

Pagozelay enpresak egingen ditu eta Nafarroako Gobernuak %60-70eko laguntza emanen du.

### Auzperriko korua

Maiatzean Igantziko

Abesbatzak Aurizberrin egindako emanaldia itzuliko du orain hango koruak. Azaroaren 6an Aurizberriko abesbatzaren saioa entzuteko aukera izanen da.



Bortzirietako  
Hiri Hondakinen  
Mankomunitatea

## Jakinarazpena

2010eko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

### ORDAINTZEKO ERA

#### Ordaintetak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan egingen da ordaintza nahi den banketxetik, abisu hirukoitzua aurkeztuz.

#### Ordaintetak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### ORDAINTZEKO EPEA

- 2010eko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2010eko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaragurekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2010eko urriaren 1ean

Presidentea  
Patxiku Irisarri Elizagoien

KULTURA → OSPAKIZUNAK

## Udazkeneko kulturaldia azaroaren 1, 5 eta 6an iraganen da

Euskara Batzordea, Ekaitza Elkartea eta Guraso Elkartek antolatu eta Udalak lagunduriko egunak dira

### Nerea ALTZURI

Ez dira garairik hobereak euskararentzat. Jakina da Gobernuak murrizketa haundiak egin dituela bere laguntzetan eta euskara da, dudarik gabe, arlorik kaltetuena. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ere diru murrizketa jasan du eta horrek ezinezkoa egin du bertze urteetan laguntzen zituen hainbat esparrutara ailegatzea. Tartean Kultur Egunak dirurik gabe gelditu dira, Mankomunitatearen aurrekontu murrizketagatik. Hala ere, Etxalarko Udalak bezalaxe, Arantzakoak ere gainerako Udalen aldean euskarari ekarpen haundiagoa egitea erabaki du. Horriesker, Euskara Batzordeak Kultur

Egunak antolatu ahal izan ditu.

### EGITARAUA

Ekaitza Elkartek ja-danik urteak daramazki azaroaren 1ean, Santu Guzien Egunean, **Base-rritarren Eguna** antolatu-tzen. Gonbidapena herriko etxe guzietan egiten zaie azoka bilakatzen den frontoian parte hartzeko eta bertako produktuak, gozokiak, tresnak, eskulanak, animaliak... era guzietakoak eramateko. Frontoi barranean erakusketarako edo salmentarako postuak paratzen dira, Elkartek berak ere ostatua paratzen du, pintxoak eta tragoxka eskainiz. Musika doinuez alaituriko goiza izaten da. Bertakoek egiten duten lan izugarria argi eta garbi gelditzen da.

Azaroaren 5ean, ortziralean eta Zahar Txokon, *Berdabio-Elama-Amusene* izeneko **solasaldia** eskainiko du Patziku Perurena idazleak. *Goizuetan bada gizon bat* kanta abiapuntuztat hartuta, Arantzako historiari, jendeari eta pajarajeei buruz hitzaldia emanen du Perurenak.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

### Onddo arraroak

Ez dira baloiak, ezta harri kozkorrak ere. Onddoak dira. Kaltzeko Esther Burlada jatetxeko etxeoandreak bere borda ondoko belagaian aurkitu ditu. Dagoeneko desagertu ez bada, horrelako bertze bat han utzia du zenbat hazten den ikusteko. Arraroak dira dudarik gabe, eta Aranzadi Elkartera eramantuzte azter ditzaten, ea zein espezie den eta jangarriak diren ala ez ikusteko.

Kantaren jatorria eta bertan kontatzen diren gertaerak ikertzen lan ederra egin du. Hortaz, hizpide nagusiak inguruko kontuak izanen dira. Eta herritar zenbaitzuk ere parte hartu dute. Beraz, adin guzietako herritarrentzako moduko mintzaldia izanen da. Egun berean, eta Ekaitza Elkartean, Miren Amuriza eta Alaia Martinekin **bertso afaria** izanen da.

Azaroaren 6an, bihar-munean, Pello Añorga **ipu in kontalariaren** eskutik haurrentzako ipuinak izanen dira eskolan. Arratsaldean, 16:30ean, **birziklapen tailerra** eta **berendua** izanen dira eskolan. Or-

du bat beranduago, 17:30ean, garai bateko **antzerkien emanaldia** izanen da Elkartean. Eta geroxeago eta leku berean, 19:30ean, hain zuzen, **opil tailerra** eginen da. Afolondoan, **bikote besta** eta **Trikihots** taldearen emankizuna izanen dira.

### Euskara ikasteko taldea

Euskara ikasteko taldea sortu da herrian eta Euskara Batzordeak hau eratzeko egin duen lana aipatzekoa da. Sei lagun ariko dira euskalduntzen, astearte eta ortzegunetan 17:30etik 19:30era eta Baskulan.

Maimordako Mentxu Peña izanen dute irakasle. Bertzalde, Solaslaguna egitasmoan parte hartu nahi duenak Euskara Zerbitzura jotzea bertzerik ez du egin behar.

### Bake epailea

Lau urtero behin aldatzen da bake epailearen ardura eta Zakuteneko Pili Larretxea da azken urteotan lan hori egin duena. Udaletik bando bat zabaldu da eta hilabete honetan bake epaile izateko asmoa duenak izena eman behar du Herriko Etxean. Inor ez bada apuntatzen, Udalak erabakiko du zer egin.

FRANCOIS VERDUREN  
**BERANDONEA, ILL.**  
FRUITAN UZA BARRAKIAI

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoak, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

# LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

arropak - maindireak  
mantak - nordikoak  
toallak - kortinak  
alfonbrak

## Goya

Albista, 5 • Tel: 948 630 083

**XITELLI**

Albista 1 - BERA  
Tfnoa: 948 631 446

## SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → DANTZA

# Dantzarien jaialdia azaroaren 6an eginen da

Ilunabarren  
hasiko da  
dantzarien  
saioa

DATUA

50

**Itxaso ARRIETA**

Joan den urteko edizioak izandako erantzun ona ikusita, aurten ere dantzarien jaialdia egitea erabaki dute herriko dantzariak. Azaroaren 6rako, larunbata, egin dute hitzordua.

19:30ean emanen zaio saioari hasiera, eta haur, gazte nahiz helduak aterako dira ikasitakoak jendaurrean erakustera. Guztira 50 lagun inguru ariko dira dantzan.

Joan den urteko dantzarien besta, Ulibeltzak Elkartearekin elkarlanean antolatuta eta elkarteari loterian tokatutako dirua aprobetxatuz afaria egin zen. 250 lagun bildu ziren. Aurtengoan, momentuz

**DANTZARI**  
inguru ariko dira  
azaroaren 6an,  
eginen den jaialdian.

behintzat, ez dago afa-  
ririk egiteko asmorik.

### Ulibeltzak Elkarteari oharra

Irailaren 30eko TTI-PI-TTAPAN bestetan laguntza eman zutenen zerrenda agertu zen, baina bat aipatu gabe gelditu zen: Gazmendi Eraikuntzak. Lerro hau bidez, Ulibeltzak Elkarteak juntak barkamenak eskatu nahi dizkio akatsagatik, eta bide batez, eskerrak eman bestetan laguntzeagatik.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean, dantzari heldu eta gaztetxoek saio ederra eskaini zuten.

## Arrutenea Pilota Txapelketaren hirugarren edizioa igandean

Migel Latasa zena gogoan, aurten hirugarren aldiz, Arrutenea Etxea Esku Pilota Txapelketa jokatu da igande honetan, urriak 31. Arruteneko semea zen Migel Latasak bizitza guztia eman zuen pilotaren munduan; erremontean eta palaz aritu zen afizionatu mailan, eta urte aunitzez Federazioaren barne ere lan egin zuen hautatzaile gisa. Herriaren alde lan egiteko ere aprobetxatu zituen Federazioan egindako urteak, eta bera izan zen oraingo pilotalekuaren bultzatzaile haundiena ere.

Txapelketa hau, hain zuzen, Migelen oroimenez egiten da eta Migel Mari Latasa bere semeak antolatzen du, Antton Espelosinen laguntzarekin. Arrutenea Etxeak daukan frontoi ttikian jokatzen dira pi-

lota partidak, eta Espelosinen hitzetan, «nahiz eta frontoi ttikia izan, sekulako partidak ikusten dira eta hurbildutako jendea gustura joaten da etxera».

**LAU PARTIDA**

Aurtengo saioa 11:00etan hasiko da eta guztira lau jokatu dira. Lehendabiziko partidari, Yago Cantero (Bera) Mikel Eltzaurdiaren (Bera) kontra ariko da; bigarren lehian Enaitz Telletxea (Igantzi) eta Oihan Canabal (Igantzi) ariko dira aurrez-aurre; hirugarren partidari Iker Espelosin herritarra Enaitz Ansoren (Mugairi) kontra ariko da eta azken saioan, David Albiasuk (Narbarte) eta Ander Errandoneak (Bera) jokatu dute. Partidak akitu ondotik, luntxa izanen da bildutakoendako.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☞ Langile autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-Kontrabutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Simitrio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

## FERIETAN

zure gosari eta bazkariak  
ARIZTIGAIN kanpinean!!!

Kaxulak | Plater konbinatuak  
Bokatak | Pintxoak  
Menua | Karta

SUNBILLA • 948 450 540 • info@campingariztigin.com  
www.campingariztigin.com



KIROLA → ESKUBALOIA

## Denboraldiko lehen titulua eskuratu dute Errekako alebin mutilek

Zizurko torneoa irabazi dute Ardoi eta Mendillorriren kontra

### TTIPI-TTAPA

Denboraldiko lehenbiziko titulua irabazi du Errekako eskubaloitaldeak berriki, alebin mutilen eskutik. Urriko bigarren asteburuan, hiru talderen arteko torneoa jokatu zuen Zizurren, Ardoi eta Mendillorri taldeekin batera eta Errekako gazteak izan ziren txapeldun.

Bertzalde, Nafarroako Kutxako Zuk aukeratu Zuk erabaki egistasmoaren barrenean duen proiektua babesteko deia ere egin du Errekak.

### TXIRRINDULARIEN JANTZIAK

Joan den urtean bezala, txirrindularientzako ekipazioa eginen du aurtenera Erreka Kirol Elkarrekin. Badirudi iaz ez zela espero adina eskaerarik izan, baina aurtenera berri eman nahi da aukera. Xabier Bañares izanen da arduraduna eta eskatzeko azken eguna azaroaren 1a izanen da.

Interesatuak Bañaresekin egon edo errekaelkarrea@yahoo.es-era idatzi behar dute.

### Koteto eta Larra Nafarroako kirolari onena izendatzeko hautagai

Nafarroako Kirol Institutuaren bidez, banatzen diren Nafarroako kirolari onenen artean berderatzi hautagai daude, eta horien artean daude Koteto Ezkurra eta Errekako judo taldean ari den Nieva Larraya. Herritarren botoekin aukeratu



ARGAZKIA: WWW.ERREKA.ORG

### Bonozorrotzeko buzoia hautsia

Erreka Elkarrekin Bonozorrotz mendian zuen buzoia hautsita aurkitu zuten Errekako hainbat kidek duela aste pare bat. Hasiera batean eguraldiagatik hondatua egon zen zela pentsatu arren, harri haundi bat gainean paratzeagatik gelditu zen argazkian ageri den bezala: estalkirik eta ormigoian zegoen plakarik gabe. 2000. urtean paratu zuen elkarrekin buzoia hau, baina hondatutakoa berreskuratzeko asmoa du. Heldu den udaberrian paratu nahi du.

ren botoekin aukeratu da zein den sariduna eta ortziral hau, urriak 29, da horretarako azken eguna: [www.deporte.navarra.es](http://www.deporte.navarra.es) web orrian edo zuzenean Kirolaren Etxean (Iruñea) egin daiteke.

### Nafarroako lehen BTT Zentroa herrian

Ameztia jatetxeak kudeatzen duen Bertiz BTT enpresa Nafarroako lehen BTT zentro bezala onartu du Nafarroako Go-

bernuko Turismo Sailak. Oraindik ez dago izendapen ofizialik, baina izen hori erabiltzen ahal duela jakinarazi diote enpresako arduradun Jorge Iribarreni eta hala ageri da bere webgunean.

## Denboraldi ederra egin du Mariezkurrenak

55 puntu eskuratu ditu Jabier Mariezkurrenak gidatzen duen Truck Navarra taldeak Europako kamioi lasterketako txapelketan, iazkoaren hirukoitzan. 11. akitu du txapelketa, sekulan izan duen emaitzarik onenarekin. Gainera, lehenbiziko aldiz, Sponsors Challenger txapelketa irabazi du.

Urriko lehen asteburuan Jaraman (Madril) lortutako emaitza txarrekin, halere, zapo gazi-gozoarekin utzi zuten taldea, urte osoko emaitza onak erakusteko asmoarekin atera zelako. Lehenbiziko sailkapen txandan, bi dezimategatik ez zuen lortu Mariezkurrenak superpolean sartzea. Baina Mika Mäkinen finlandiarrek

emandako kolpeak zapuztu egin zituen itxaropenak. Mäkinenekin lehia ibili zen, eta azkenean biak zigortu zituzten: finlandiarra legezkoak ez ziren maniobrak egiteagatik eta Mariezkurrena, bertzearen gibeletik, orduko 162 kilometrorra ailegatzeagatik.

Larunbateko bigarren karreraren 9. postuan akitu zuen. Eta igandeko sailkapen proban superpolea lortu zuen, 10. sailkatuta. Baina asteburuko hirugarren lasterketan, istripua izan eta 14. akitu zuen. Laugarren saioan ongi hasi arren, olio, gasoleo eta euria tarteko, segurtasunagatik erretiratu egin zen.

Azken saioan ez zuen denboral-



ARGAZKIA: TRUCK NAVARRA

Mariezkurrena Europako txapelketako saria jasotzen.

dia borobiltzerik izan, baina ederki aritu da aldi honetan ere.

**ORAIN**  
asteburutan ere irekia!

Ameztia, 7  
Tlxoa: 948 450 271  
DNEZTEBE

**sarobe**  
psico-logia klinika

Erdo estigara 25 baxo  
48700 berri(navarra) 1948 63 08 99  
www.sarobe.net

**BEINTZAKO OSTATUA**  
948 45 00 14

Orbelako 11. altzairuaren ondoan  
11701 BEINTZA (NAVARRA)

**ORBELA**

## ITUREN

EUSKARA → LAGUNTZA

# Herritarrek ere euren ekarpena egin diote Nafarroa Oinezi

Joaldunak eta Trikidantz taldeak laguntza eman dute

## Arkaitz MINDEGIA

Urriaren 17an Atarrabian ospatu zen Nafarroa Oinezen herritarren laguntza ere nabaria izan zen. Goizean goizetik euskararen alde eta Nafarroako ikastolei laguntzeko asmoz jende aunitz hurbildu zen Atarrabiara.

Baina herriko joaldunek eta Trikidantz taldeak ere euren ekarpena egin zuten. Joaldunak goiz goizetik itzu-

lian barna joare soinuak jende artean entzunarazi zituzten eta aunitzen harridurarako gainera. Eta bertze aldetik, azken urteetan bezala, Trikidantz taldeak ikastoleei eta batez ere, euskarari laguntzeko asmoz, bere kontzertua eman zuen. Laugarren arean egon zen 12:00-etatik 13:00-etara eta haur, gazte nahiz helduak hurbildu ziren kontzertua ikustera. Lerro hauen bitartez, eskerrik asko denei.

## Animatu San Martin bestetara!

Azaroaren 10tik 14ra San Martin bestak izanen dira Aurtitzen, eta



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Trikidantz taldeak jendetza bildu zuen bere kontzertuarekin.

animatzea bertzerik ez zaigu gelditzen. Egune-

an eguneko ekitaldien xehetasunak hurrengo

orrialdean irakur ditzakezue.

armadenda andueza

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

**BESTAK** → AZAROAREN 10ETIK 14RA

## Olasagasti, Oihan Larretxea, Mindegia eta Erasun ariko dira igandean

San Martin Egunaren bezperan botako da altxaferoa

Igandearekin akituko dira bortz eguneko bestak

### ASTEAZKENA 10 Bezpera

**20:00etan** beste hasiera emateko altxaferoa. **Gero** kalejira bertako txistulari eta trikitilarien eskutik. **Ondotik** zopak Aurtizko Ostatuan.

### ORTZEGUNA 11 San Martin Eguna

**10:00etan** Argisoinuak. **11:00etan** Meza Nagusia Martin Donearen ohorez. **16:00etan** haurrendako jokoak.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Neska-mutikoak dagoeneko desiatzen egonen dira bestak ailegatzeko.

**18:00etan** postre lehia-keta. **23:00etan** mus txapelketa elkartean. **Ondotik** trikipotea bertako trikitilariekin.

### ORTZIRALA 12 Herritarren Eguna

**10:00etan** Argisoinuak.

**14:00etan** herri bazkaria elkartean, Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariekin eta JOXE ANJEL akordeoilariare-

kin. **Gaez** Zubietako AIERRIK talde berriak dantzaldia eskainiko du.

### LARUNBATA 13

**10:00etan** Argisoinuak. **12:00etan** Iturengo dantzarien emanaldia. **17:00etan** trikitixa jaialdia. **Akitutakoan** hauentzat berendua izanen da elkarte. **Gaez** dantzaldia GABEZIN taldearekin.

### IGANDEA 14

**10:00etan** Argisoinuak. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** aizkora apustua: Joxe Mari Olasagasti eta Oihan Larretxea alde batetik, Miel Mindegia eta Ander Erasun aurtiztarraren kontra ariko dira. **19:00etan** patata tortilla lehia-keta elkartean. **Ondotik** herriko trikitilari gazteen eskutik dantzaldia, eta horrela emanen zaie beste akabera.

**APARAN, S.A.**  
**ERIKOLAILA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**AURTITZKO OSTATUA**

Sagardolegi menua  
Menu bereziak • Bokatak • Plater konbinatuak  
Ortziral gauetan zopak emanen dira  
GRATIS PASA BESTIAZ  
AURTITZ • Tel: 948 451 625  
www.aurtitzko-ostatua.com

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

## ZUBIETA

GIZARTEA → ESKOLA ZAHARRAREN BEHEKO SOLAIRUAN

# Laster inauguratuko da haur eta gaztetxoentzat prestatu den ludoteka

Funtzionamenduaz solasteko gurasoekin bilduko da Udala

### Fermin ETXEKOLONEA

Berandu gabe, egoitza berria izanen dute haur eta neska-mutiko kizkorrek horretarako egokitu den eskola zaharraren beheko solairuan. Eskola zaharra hutsik zegoela eta, ludoteka gisa erabiltzea erabaki zen bere garaian, eta horretarako dirulaguntza eskatu zuen Udalak; 5.000 euro inguru hartu zituen.

Lerro hauek idazterakoan ludoteka zabalteko azken ukituak ematen ari ziren: garbiketa lanak egin dira, al-



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Ludoteka barrenetik nola gelditu den ikusteko aukera izanen dugu abudo.

tzariak ere ailegatu dira, Mankomunitateko langileek margotze lanak egin dituzte... Iru-diak emititzeko proiektorea ere izanen da.

Orain arte, beheko solairuan egin diren gau-

zak, berriz, goiko solairuan eginen dira hementdik aurrera. Besteak beste, eskulan ikastaroak edo taldekako beste jarduerak. Horrez gain, Aierrik musika talde berriak ere goiko solai-

ruko gela bat erabiliko du entsaioak egiteko.

### KUDEAKETA

Ludoketaren funtzionamendua oraindik erabaki dagoen kontua da. Udalak ez du ludotekaz

arduratzeko norbait kontratatzeke dirurik, eta beraz, gurasoekin bilera eginen du nola kudeatu solasteko. Proposamenak jasoko ditu Udalak bilkura horietan. Inaugurazio eguna ere oraindik zehaztu gabea da.

### Duba herrian

Paper kontuak tarteko, atzeratu egin da aurreten ere Duba Saharako neskatoaren etorrera, baina berandu bada ere, gure artean da berriz. Urriaren 9an etorri zen, eskolako ikasturtea hasi eta hilabetera. Lauz-pabost urte dira Duba lbarrenera etortzen dela, ikasturte garaia pasatzen du hemen, eta udan sortetxera, Saharara, joaten da familia-rekin egotera.



**ELGORRIAGA**

BALNEARIO - BAINUETXE

**ORAIN FISIOTERAPIA ZERBITZUA!**

Gure ur mineral medizinalak ondorio antiinflamatorioak eta erlaxatzaileak dituzte. Gazitasun altuagatik, sekulako flotagarritasuna dute eta, ondorioz, sentitzen den erlaxazioa eta ongizatea erabatekoa da.

### GURE GORPUTZARENTZAT ONURAGARRIA | Onura klinikoak

- **Osteoartikulazio-aparatuan:** erreumatismo kroniko eta handigarrietan, tendoietak minetan, neuralgietan, traumatismoen ondorioan sendatzeko.
- Gehiegizko esfortzu fisikoaren ondorioetatik **indarberritzeko**.
- **Arnas aparatua:** katarroendako, errenitis eta sinusitis kasuetarako.
- **Larruazala:** ekzema kronikoak, psoriasis eta erreduren ondorioetatik osatzeko.
- **Zirkulazio-aparatua.**
- **Sistema neurovegetatiboa eta neurosikikoa:** estresa, ahulezia, depresioa.



### IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA

**Bakarrik 10€ pertsonako** [eskualdean bizi direnentzat], Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara [bakarrik arratsaldeetan]  
BALDINTZAK: Erreserba egin behar da. Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu.

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga [Nafarroa] T. 948 45 60 45 [www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)

## GIZARTEA

# 71 zaldunek itzulia egin dute herrian barna

Herriko Ostatuan egindako bazkariarekin eman diote egunari akabera

### LIBURUTEGIA

Asteleheneetik ortziratera 18:30etik 20:00etara egonen da zabalik liburutegia. Miriam Mindegia da arduraduna.

### Iñaki TELLETXEA

Egun ederra pasatu zuten urriaren 16an Donamarian bildu ziren zaldunek. Jauregiko atarian elkartu eta gero, 71 zaldiz osatutako taldea herriari itzulia egitera atera zen. Gaztelu eta Txarutatik pasatu ondotik, Belate ingurura hurbildu ziren gosaltzeko. Labeaga eta Amezetatik segitu zuten, ondotik berriz ere herrira jeisteko. Akitzeko, Herriko Ostatuan bazkari eder batekin egunari amaiera eman zioten.

### Liburutegia zabalik

Urtero bezala ikasurtearekin batera, herriko liburutegiak ere atek zabaldu dizkigu.

Liburutegia asteleheneetik ortziratera 18:30etik 20:00etara irekia egonen da eta Miriam Mindegia izanen da bertako arduraduna.

### Hilerriko bidea moldatzea

Hilerriko bidea moldatzeko lanak Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu zaizkio. Bertan egin beharreko lanak, bertzeak bertze, bideko zola altxatu, hormigoia bota eta hilerriko ataria moldatu izanen dira. Lan hauek egiteko aurrekontua 113.634 eurokoa da eta %70-eko dirulaguntza izanen du Udalak.



ARGAZKIA: AITOR BERISTAIN

Zaldunek gustura egin zuten buelta.



ARGAZKIA: I. TELLETXEA

### Gimnasia ikastaroa

Gure hezurak zaulitu eta neguko hotzei aurre egiteko berriz ere gimnasia ikastaroa martxan paratu da herrian. Dozena bat laguneko taldea elkartzen da beraien gorputzak sasoiari jartzeko. Herriko frontoian elkartzen dira astelehenean eta asteazkenean 15:00etatik 16:30era. Oraindik ere izena eman nahi duenak badiu aukera, horretarako nahikoa du bertara hurbiltzea.

**F. LANCHAS**  
Akabidorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
Ungardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
Tel: 948 630 737

**udana** salazones  
UNE-EN-ISO 9001  
**IAC**  
Sistema de Gestión de Calidad  
Sistema de Gestión de Medio Ambiente  
S.C.C. 02-0199  
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest  
Alkaiaga ind. - Banarta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOKKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

## ZOKKETAK

ttipi txarteldun guztien artean  
zozketatuko dira sari hauek

528 ALEKO IRABAZLEAK

\* TTIPI SASKIA

- Elena ARA IGLESIAS | Bera
- \* PIRRITX, PORROTX ETA... LOTEA  
Rosario MARTIKORENA | Etxalar
- \* ONIN ART KAMISETA  
Marisol ZUBIETA | Lesaka
- \* EREIN LIBURU LOTEA  
Blanca Esther SEIN | Igantzi
- \* ONDDO TA PUNTO KAMISETA  
Izaskun BAZTERRIKA | Ituren

## TTIPI SASKIA

- TTIPI-TTAPAKO MOTXILA
- GURE GORPUTZA JOLASA
- FATIMA LIBURUA
- DEABRUAK TEILATUETAN KAMISETA
- PIRRITX ETA PORROTX DVD



PIRRITX, PORROTX  
eta MARIMOTOTS  
[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)

## ZORIONAK

\* Hilabete bateko epea sariak biltzeko



KAMISETA 1  
ONIN ART  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



## DESKONTUAK

**CSTIZ**  
%10 konponketan

**nafarpress**  
%10 liburu eta ikas materialen  
testu liburuak eta bidetarako erik

JUAN J. PIKABEA  
%10 galtza marka batzutan erik

**antsoakula**  
%10 martxulan

**SANSIÑENA**  
CITROËN  
%10 olio aldaketan

GIZARTEA → AURTEN XVIII. ALDIZ

# laz baino hiru jatetxe gehiago ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan

Ortziral honetan hasi eta azaroaren 28an akituko dira

## TTIPI-TTAPA

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hamahiru jatetxeek parte hartuko dute aurten XVIII. aldiz eginen diren ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan. Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatzen dituen jardueren artean, ohikoa bihurtu den ekimena da eta ortziral honetan, urriak 29, emanen zaio hasiera. Bukatu, berriz, azaroaren 28an eginen da eta bitarte horretan, 25 eta 35 euro bitarteko menuak eskainiko dituzte hamahiru jatetxeek. Prezio horiei eda-

riak eta BEZ gehitu behar zaizkie.

## 13 JATETXEAK

Hauek izanen dira ehizari lotutako menu bereziak eskainiko dituzten jatetxeak: Almandozko Beola, Arantzako Burlada eta Aterpe, Berako Zalain eta Lenkonea, Donamariako Benta, Doneztebeko Amezitia, Elbeteko Posada, Igantzioko La Villa, Iruitako Olari, Lesakako Koxkonta eta Bereau eta Oitzko Posada. Joan den urtean baino hiru gehiago dira.

Menu osoak, prezioak eta jatetxeekin harremanetan jartzeko telefonoak kontsultatzeko Bertiz Partzuergoaren web orrian daude, [www.consortiobertiz.org](http://www.consortiobertiz.org)-en.



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Bide Berdeak hizpide Bertizen

Bide Berdeen Foroa egin zen urriaren 21ean Bertizen, Bide Berdeen Fundazioak eta Bertizko Turismo Partzuergoak antolatua. Eskualdeko zein estatuko hainbat entitateko ordezkariak bildu ziren eta turismoaren garapena izan zuten hizpide. Bidasoko bide berdeari dagokionean, Eurovelo proiektuan sartzeko egin behar den 800.000 euroko inbertsioetik %35a Nafarroako Gobernuak paratu duela gogoratu eta 2012an **Doneztebetik Saldias eta Orokietan barna Irurtzuekin lotzeko asmoa** azaldu zuten. Plazaolako trenbideari buruz, berriz, **Leitzako estazioan** bertze solairu bat egiteko 300.000 euroko inbertsioa egin dela aipatu zuten. 2012an eta 2013an 150.000na euroko inbertsioa eginen dela ere jakinarazi zuten, 300.000 euro guztira, estazioa barrenetik moldatzeko eta bertan **aterpe turistikoak, BTT zentroa eta informazio puntua** egokitzeko.

**J. RAMOS**  
zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut  
Sakelekoak: 637 836 073 · LESAKA

Eginzazu TTIPI-TTAPAren alde  
proiektu zenbakia:  
**15.996**  
Zure laguntza eskaintzeko, baitak edo/eta gure partzuergoaren duzu!

**ANTZUZELAS S.L.**  
Tel: 948 631 317  
**HARRI NATURALA**  
Aterpetan eta Leintzen  
Baztaneko jatetxeak  
Bortzirietako jatetxeak  
Berako jatetxeak  
Lenkoneako jatetxeak  
Donamariako jatetxeak  
Doneztebeko jatetxeak  
Elbeteko jatetxeak  
Igantzioko jatetxeak  
Iruitako jatetxeak  
Oitzeko jatetxeak  
Zintzarriko jatetxeak  
Koxkontako jatetxeak  
Bereauko jatetxeak  
Irungo erretorikoa  
BENA

2010eko URRIAREN 29tik AZAROAREN 28ra *Ehiza*  
**XVIII. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK**

ALMANDOZ Beola   948 585 300	DONEZTEBE Amezitia   948 451 902
ARANTZA Burlada   948 634 027	ELBETE Elbeteko posada   948 581 519
ARANTZA Aterpe erretegia   948 634 079	IGANTZI La villa   948 637 290
BERA Zalain   948 630 967, 948 631 003	IRUITA Olari   948 627 254
BERA Lenkonea Churrut   948 625 540	LESARA Koxkonta   948 627 319
DONAMARIA Donamariako Benta   948 450 708	LESARA Bereau   948 627 309
	OITZ Posada de Oitz   948 451 951

**ANTOLATZAILEA:**  
BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA  
Landa Turismo Zentroa  
31720 OIEREGI (Nafarroa)  
Tel.: 948 59 23 23 | Fax.: 948 59 22 75  
[bertiz@consortiobertiz.org](mailto:bertiz@consortiobertiz.org)  
[www.consortiobertiz.org](http://www.consortiobertiz.org)

**LAGUNTZAILEAK:**  
Euzko Legebiltzarra  
Noticias  
Eren lo que lees  
Nafarroa

# GOIZUETA

KULTURA → OSPAKIZUNAK

## Azaroa kultur ekitaldiz gainezka heldu da aurten ere

Hilaren 7an Zaharren Egunaren edizio berria ospatuko da

**Esteban AROTZENA**

Krisiak krisi, Kultur Taldeak eta Udalak azaroa ekitaldiz betetzea lortu dute aurten ere, eta jaso dugun informazioaren arabera, hagitz aberatsa dela dirudi gainera aurtengo prestatu dute egitarauak.

Bisita gidatuak, antzerki emanaldiek, liburu aurkezpenak, gazte topaketak, argazki eta bideo emanaldiek, bertso saioek, kontzertuak, herri kirolak, dantza talde baten saioak, eta guztien gainera dagoen hilaren 27ko Feriak osatzen dute gain gainera esanda, azaro kulturalaren emanaldien zerrenda. Honetaz aparte, aipatzekoa da, hurrengo igandean, hilak 7, Umore Ona Elkartek antolatuta ospatuko den Zaharren Eguna.

**ZAHARREN EGUNA**

Hilaren 7a idatzi badugu ere, esan beharrezkoa da, bezperan hasiko direla urtero bezala, jubilatuen festaren ospakizunak. Orduan jokatu baitira ohiko museko eta trukeko txapelketak. Biharamunean, bazkaria izanen du-

**BISITA GIDATUA**

**Joxe Jabier Etxeberriarekin, herriko etxe adierazgarrienetan bisita gidatua eginen da azaroaren 6an.**

te elkartean, eta goizeko pilota partidek eta egun osoan gurean izanen diren Legarreta eta Irazu bertsolariek boroilduko dute eguna.

**BISITA GIDATUA**

Hurrengo larunbatean, hilaren 6an, burutu da aipatutako azaro kulturalaren lehenengo ekitaldia, gurean sekulan egin ez den motakoa gainera. Urrutineko Joxe Jabier Etxeberria gidari hartuta, goizeko 11etan plazan elkartutako guztiak herriko etxe esanguratsu guztien aurrera joanen dira. Bakoitzaren ezaugarri, historia eta abarren berri emanen zaie han.

Inor baldin bada gai hau menperatzen duena, hori Etxeberria da. Orain dela urte batzuk herriko 43 etxe berezietan gida kaleratu zuen Kultur Taldeak. Laudorio asko jasotako lan honen arduradun printzipala Joxe Jabier bera izan zen.

**ANTZERKIA GANBARAN**

Egun bereko arratsaldean ere izanen da kultur emanaldirik he-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Azaroaren 7an egun handia izanen dute jubilatuek, Zaharren Eguna ospatuko baita.

## Etxebizitzen beharrei buruzko inkesta



Herriko gazteek jaso dute dagoeneko etxebizitzari buruzko inkesta. Hori beteta bueltatzeko epea, berriz, aste honetan bukatuko zaie. Herriko Etxeko sarrerako buzoiara edo bulegora bertara eraman behar da inkestak orria.

rrian, Ikatzola bordako Edurnek aktuatuko baitu Garbanan, 19:30etik aurrera. Bakarriketa saioa izanen da.

**FERIA ETA HERRITARRAK**

Azaroako Ferian herri-

arren parte-hartzea bultzatzea da antolatzaileen helburu nagusienetakoa. Ba, aurten ere, eta TTIPITTAPAREN bidez, antolatzaile taldeak deialdia luzatu die herritar

guztiei festa handi honetan edozein eratarako parte har dezaten, aziendak, lanabes eta tresna zaharrak plaza-ratuz, eta salmenta postuak paratuz, esate baterako.

**ttipi-ttapa**

- Paperetako edizioa
- Hemerroteka
- Eguneko berriak
- Agenda
- Merkatu ttikia
- Eguraldia
- Urtebetetresk...

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

616 513 497

**Pititi ESKABAZIOAK**

**GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK**

Kontenedoreak: 5 m<sup>3</sup> - 7m<sup>3</sup> - 12m<sup>3</sup> - 30m<sup>3</sup>

**Mota guztietako hondakinak biltzen dira**

Tel/Fax: 948 45 13 89  
C/ Ameztia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)



GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

## Afariz eta festaz beteta etorriko da azaroa

Hasteko azaroaren 6an barrikotea eginen da

### Ainhoa ANSA

Azaroaren 6an, Kontsejun jarriko dute Ezkeran Bordako sagardoari lagunduko dion afaria. Barrikote honetan bakailao tortilla jarriko dute lmanolek eta Ainhoak hasteko, bakailaoa saltsa berdean segidan eta saiheskia gero. Giro ezin hobea eta jateko eta edatekoa zer esanik ez! Afaltzera joan nahi duenak Kontsejun eman behar du izena azaroaren 4a

baino lehenagotik.

### SAN MARTIN

Aurten ere talo eta gaztain jatea izango dira San Martinetako giroa bilduko dutenak. Azaroaren 13an ospatuko da San Martinetako festa, azken urteetan egin izan den bezala, eta aurten ere izango da kultura emanaldirik herritarrei begira. 18:00etatik aurrera hasiko da festa eta meza eta gero, ilunabarra girotzeko, taloak eta gaztainak erretzen ariko dira batzuk; txistorra, hirugiharra, txokolatea eta gazta prestatzen beste batzuk eta, kanpoaldetan ere, nola ez, jendea



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Gaztainak eta taloak San Martin jaietan hutsik egiten ez duten bi osagai dira.

egotea espero dugu jateko egongo den guztia nonbait gordetzeko.

Bestalde, aurten ere izango da Arano gaitzat hartuta egiten dugun argazki lehiaketa, hirugarrena hain zuzen. Kontsejura eraman daitezke argazkiak, sobre batean sartuta. Pertsonako argazki bakarra aurkeztuko da eta argazkiaren atzean izen-abizenak edo etxearen izena jarri behar dira. Argazkiari izenburua jartzea ere eskatu da. San Martin Egunean erakusketa ikusgai egongo da Kontsejun.

### ZIKIRO JATEA

Zikiro jatea aurten San Martinak eta hurrengo ostiralean, hilak 19, egingo da Kontsejun. Afari horretarako ere izen-ematea tabernan bertan egin beharko da.

### Aldizkaria Aranon

Urtea amaitzerako, Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik eskaintako laguntza bati esker, aldizkari ttiki bat kalera-tu ahal izango dugu Aranon. Bertako kontuak eta bestelako berriak plazaratzeko balioko du eta lan talde bat ilusioz da-

bil aldizkaria osatzen. Falta dugun gauzetako bat, ordea, izena da!

Izena aukeratzeko herrikoen laguntza eskatu nahi dugu. Kontsejun jarriko dugun buzoian Aranon noizbait entzun zen eta aspaldian entzun ez duzun hitz hori, edo dena delako arrazoiagatik berezia iruditzen zaizun hitz hori, bere esanahiarekin, paper batean idatzi eta botatzea da eskatzen dena! San Martinak arteko epea izango du lehiaketa honek. Lagundu aldizkariarentzat izen egokia aukeratzeko!

estredoï fundak  
albornozak  
estredoï nordikoak  
ohe estalkiak  
maïndireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea  
Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

Edredoï fundak eta nordikoetan espezializatuak

## LEITZA

GIZARTEA → EHIZA

# Aspaldi ez bezala, bazkideen baja gehiago izan dira aurten ehiza elkartean

Hurrengo urteko maiatzean berrituko da junta

## TTIPI-TTAPA

Aurreko urteetan baino bazkide gutxiagorekin hasi du denboraldia Ehiztarien Elkartean. Aspaldian, urtetik urtera gero eta bazkideen alda gehiago izan badira ere, aurten ez da horrela gertatu; aurten baja gehiago izan dira.

Uso, basurde zein oilagorretan ibiltzen diren 430 ehiztari osatzen dute gaur egun elkar- te, eta horietatik 339 dira usoetan ibiltzen direnak. Uso ehiztari- ken urriaren 9an hasi zuten sasoi berria, eta aurten 113 hirukote osatu dituzte. Ohi bezala, denboraldi hasieran egindako zozketa bidez erabaki zen hirukote bakoitzari dagokion postua zein den, eta orduan egokitutako tokian egonen dira azaroaren 14ra bitarte. Aipatzekoa da, aurten bazkideen bajak izan direnez, hirukote bakoitzak egunero badiela postua; joan den urtean, ordea, ehiztari gehiago izanda, egunero ez zen denentzat posturik izan.

## DATUA

430

## EHIZTARI

daude gaur egun elkartean. Horietatik 339 usoetan ibiltzen dira.

## BANAKETA

**Azaroaren 14tik aurrera, egunero finkatuko dira postuak, goizero eginen den zozketarekin. Bitartean, hirukote bakoitzak ehizatzeko bere tokia izanen du.**

Azaroaren 14tik aurrera, aldiz, oilagorren garaia hastearekin batera, egunero finkatuko dira postuak, goizero 07:00etan elkartean eginen den zozketarekin, hain zuzen.

## JUNTA BERRITZEA

Lau urteko agintaldiaren ondotik, 2011ko maiatzean berrituko da Arrantza eta Ehiztarien Elkarteko Zuzendaritza Batzordea. Eta kargurako boluntariorik aurkeztu ezean, zozketa bidez osatuko da junta berria. Bitartean, orain arte egon direnek segituko dute. Leitza, Areso eta Arribe-Atalluk

osatzen dute barrutiko lehendakaria Jose Migel Largo herritarra da; Leitza elkarteko lehendakaria Juan Mairiezkurrena da; lehendakariordea Joseba Aierdi; diruzaina Oskar Saralegi; idazkaria Juanjoxe Ariztimuño eta sei bokalak Pepe Alvarez, Luciano Villabona, Peio Ariztimuño, Peio Astibia, Klemente Baraibar eta Unai Olano dira.

## Orantzaroari buruzko hitzaldia eta mahai-ingurua

Orantzaroaren usadioa izanen da hizpide azaroaren 5ean Liburutegian eginen den hitzaldi eta mahai-inguru-

an. Orantzaroaren gaineko ikerketaren azalpena emanen da, baina horrez gain, herritar batzuen testigantza biziak ere entzuteko aukera izanen da eta usadioa aberasteko proposamenak ere bilduko dira. 19:30ean izanen da.

## Zinema

Hauek dira zineman eskainiko diren hurrengo filmak. Azaroaren 5ean eta 7an Roman Polanskiren *El Escritor* izanen da ikusgai, eta azaroaren 12an eta 14an James Grayren *Two Lovers*. Beti bezala, ostirale- tatarako emanaldiak 22:30ean izanen dira eta igandetakoak 19:30ean. Sarrera sei eurokoa da.

## Oialde Txokoren denboraldi berria

Azaro hasieran abiatuko da gaztetxo- en bilgune den Oialde Txokoaren denboraldi berria. Dena den, ordutegiak eta gainerako xehetasunak hurrengo alean aipatuko ditugu.

## Gazteen egunerako autobusa

Azaroaren 13an Goizuetan eginen den eskualdeko gazteen egunerako autobusa 10:00etan abiatuko da kiroldegitik eta itzulera- koa 02:00etan Goizue- tatik. Eguneko ekitaldi- en inguruko xehetasunak Goizuetako kroni- kan irakur daitezke.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Hasi dira Atekabeltzeko lanak

Atekabeltz eraikina herrigune moduan egokitzeko obrak hasi ditu Udalak. Lehenengo fasean, teilatua, fatxadak eta leihoak berrituko zaizkio eta lanek 192.000 euroko aurrekontua izanen dute. Atekabeltza herrigune bihurtuz, herriko eragileak elkartu eta autogestioz kudeatuko duten gunea sortzea da Udalaren nahi, hau da, eragile sozial, kultural, sindikal eta bestelakoentzako txokoa pres- tatu nahi da. Xabier Zabalo alkateak adierazi digunez, «aspaldi faltan botatzen den azpiegitura izan nahi du saiakera honek». Nafarroako Kutxaren *Zuk auke- ratu*, *zuk erabaki* ekimenaren barrenean ere aurkeztua du Udalak Atekabeltze- ko egitasmoa, 288.000 euroko aurrekontuarekin.

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde  
proiektu zenbakia:  
**15.996**

Zure laguntza erabiltzeko,  
baita edo berri gurekin elkar-  
tuta.

PILOTA → GARAIPEN BERRIA

# Urrezko domina eskuratu du Unai Onsalok Munduko Txapelketan

Garaipenagatik lagunek ongi-  
etorria egin diote herrian

## Juana Mari SAIZAR

Unai Onsalok urrezko dominarekin itzuli da herrira Pauen jokaturako Munduko Pilota Txapelketa irabazi ondoren. Medina mexikarraren aurka jokatu zuen finala eta hau faboritua izanda ere, Unai 22-20ko emaitzarekin irabazi zion.

Herrira iristerakoan, herriko gazteek ongi-  
etorria egin zioten, txanpaina ireki eta suziriak ere bota ziren. Gero lagun artean afaldu zuten Pake Toki elkartearen. Bere esanetan, bere amonaz gain, Areso eta Berastegiko herritarrei es-



ARGAZKIA: FIPV

Unai Onsalok txapelketa irabazi du frontoi osoan eskuz banakako modalitatean.

kaini die txapela eta herriak oso harro hartu du hau, eskerrik asko. Nahiko estresatuta iritsi zen herrira hamar eguneko kontzentrazioaren ondoren, eta hori dela eta egun batzuk libre hartu

ditu atseden hartzeko. Orain herriko mendietan dabil ehizean.

## Ur araztegiko lanak

Ur araztegiko lanak 2011n hasiko dira, baina dagoeneko lurren

desjabetzarekin hasiak dira. Norbaitek ikusi nahi badu, udaletxean dago proiektua eta alegazioak egiteko garaia ere ireki da.

Bestalde, abeltzaintzarako etorri ziren di-

rulaguntzekin obrak egiten Gorritz enpresa hasiko da, bera izan baita enpresa esleituia.

## Katekesiaren ikasturte berria

Parrokiko ikasturtea hasi da eta katekesian hasi behar duten haurrekin bilera egin du apaizak. Eskolan, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik seigarren mailara bitarteko haurrak hasiko dira eta hitzordua asteazken arratsaldetan egin dute, 16:00etan.

Beste proposamen batzuk ere martxan jarri nahi ditu, hala nola, helduentzako katekesia, koru txiki baten hasiera eta igandetako mezaz gain, asteazken arratsaldetan katekesi ondoren meza.



**Grupo Tanatorio Taldea**  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

**24 ORDUKO ZERBITZUA**  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

<b>Bera</b> SAN JOSE BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Doneztebe</b> SAN PEDRO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Elizondo</b> FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	948 58 19 59
<b>Leitza</b> LEITZAKO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Lesaka</b> LESAKAKO TANATORIOA	948 63 74 04

# BAZTAN

LEKAROZ → AROZTEGIA JAUREGIKO EGITASMOA

## Udal Planaren aldaketari behin betiko onespena eman dio Gobernuak

Aroztegia... eta gero zer? plataformak «berriro ere» NaBaik eta UPNk bat egin dutela salatu du

### TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegia Jauregia alderdian golf zelaia, hotela eta urbanizazioa egiteko Udal Planaren aldaketa puntualari behin betiko onespena eman dio Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Sailak. Palacio de Aroztegia S.L.k sustatutako espediente da, Udalak Gobernuan aurkeztua.

Halere, Gobernuak agindu duenez, «sektoreko urbanizazio proiektuan eta plan partzialean Lekarozko eta Elizondoko herriguneetara joateko oinezkoendako bideak definituko dira eta horien aurrekontua egiten da. Elizondokoaren kasuan, egin behar den saihebiderekin gurutze

tzatzeko konponbidea azaldu beharko da, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak egiten dituen zehaztapenei jarraikiz». Beraz, Lekaroz eta Elizondoren arteko oinezkoendako bidea eta etorkizuneko saihebiderea gurutzeatzeko konponbidea promotorearen esku geldituko dira.

### PLATAFORMAREN BALORAZIOA

Azken berriaren aitzinean, Aroztegia... eta gero zer? plataformak «NaBaik eta UPNk berriro ere bat egin dutela» kritikatu du prentsara igorritako oharrean: «Baztanen eredu ekonomiko espekulatzaile eta suntsitzailea bultzatzeko» bat egin izana leporatu die «non guttiengo baten interesak defendatzen diren, herritarren gehiengoan erabakia defendatu beharrean». Taldearen irudiko, eredu horrek «Baztango ekonomia eta baliabideak agortzera eramaten du, hurrengo belaunaldi etorkizuna lapurtuz».



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Istripu larria Amaiurren

Hiru gizonetako frantziar hil ziren urriaren 12ko eguerdian Amaiurren, Alkurruntz mendiaren inguruan, hegazkin batek izandako istripuan. Hainbat zatitan gelditu zen hegazkina –ikusitako argazkia–, eta hildakoen gorpuzkinak ere sakabanatuta gelditu ziren. Frantziako matrikuladun hegazkina Afrikarako dirua lortzeko rally batean parte hartzen ari zen, eta Frantziatik abiatu eta Senegalera joatea zen helburua. Bertzalde, urriaren 19an motorrik gabeko hegazkin tiki batek larrialdietako lurreratzea egin behar izan zuen Mendialde alderdian.

### SUTEAREN AFERA

«Legez, sutea egon den tokian ezin da 30 urtez lurra birkalifikatu. Eta hau bai enpresak eta bai Udalak ere aski ongi dakite»

Aroztegia... eta gero zer? plataforma

Udalaren jarrera ere salatu du: «proiektu hau aurkeztu zenetik ez dio herriari azaldu zeintzuk diren proiektu hau aurrera eramateko arrazoiak, ezta norentzat izanen diren ere Udal Planetik kanpo Lekarozen egin nahi diren 252 etxebizitzak». Aldi berean, Nafarren «hipokresia» ere kritikatu du, «oposizioan dagoen tokietan Aroztegia bezalako pelotazo urbanistikoaren aurka agertu baita».

Proiektuak «akats eta gabezia aunitz» dituelakoan daude plataforman eta alegazioak aurkeztuko dituztela ere jakinarazi dute. «Irregularitasunen» artean, sutearen afera aipatu dute: «legez, sutea egon den tokian ezin da 30 urtez lurra birkalifikatu. Eta hau, bai enpresak eta bai Udalak ere aski ongi dakite». Proiektuaren kontrako alegazioetan bildua dago hori eta «alegazioei emandako erantzunean Udalak Nafarroako Gobernuari sutearen informazioa eskatu diola dio», ageri da oharrean. Gaineratu duenez, «Nafarroako Larrialdi Agentziara egindako eskaeraren erantzunean, 2005eko martxoaren

23an Aroztegia paraje izandako sutearen berri ematen du, partzelaren zenbakia zehaztu gabe. Hau jakinda, Udalak sutearen leku zehatza zein den jakiteko egin beharreko gestioak egin beharrean ezjakintasuna alegatu eta parte hau espedientetik kanpo uztea erabaki du».

Plataformak sute honen tokia Nafarroako Ingurumen Departamenduan egindako eskaera baten bitartez lortu duela ere adierazi du: «etxebizitzak egin nahi diren partzelan izan zen sutea». Informazioa plataformak Udalarri helarazi arren, «Udalak proiektuarekin aitzinera segitzea erabaki du, legea betetzeari muzin eginez».

**suteia**  
INFORMAZIOA

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardurarik gabe instalatzen dizugu

**ENERGIA** → KYOTOKO ETXEBIZITZAK IZENEKO PLANA

# Etxeetako energia kontsumoa murrizteko programa landuko du Udalak

Horretarako doako hiru saio egingen dira aste honetan eta hurrengoetan

**TTIPI-TTAPA**

Etxeetako energia kontsumoa murriztu, klima aldaketa apaltzea helburu duen Kyoto Etxebizitzak izeneko programa bultzatu nahi du Udalak Baztanen. Ekimen honen bidez, egunerokoan ohikoak diren gauzak egiterakoan energia guttiago kontsumitzea izanen da gakoa. Izan ere, Nafarroa osoan kontsumitzen den energia osoaren %12 etxeko kontsumorako erabiltzen da: argia piztean, hozkailua irekitzean, jantaria prestatzean, berogailua graduatzean... Kyoto Etxebizitzek, aldiz, kontsumo hori %5,2era murrizteko

konpromisoa hartzen dute. Elektrizitate eta gas kontsumoa kontrolatuz jakin daiteke erronka hori bete den ala ez.

**HIRU SAIO**

Kyoto Etxebizitzak programarekin egunerokoan ohikoak diren gauzak landuko dira, energia aurrezteko aholkuak eta gomendioak emanez. Horretarako hiru saio antolatu dira: lehendabizikoan berogailua eta ur beroaz ariko dira; bigarrenean etxetresnak eta eraginkortasun energetikoa izanen dira aztergai eta hirugarrenean kontsumo arduratsuz ariko dira. Saio hauez gain, autoak modu eraginkorren gidatzeko tailerra ere eskainiko zaie partehartzaileei. Kyoto-kit bat ere banatuko da lanearan hasi ahalizateko. Ura aurrezteko tresna sorta bat, termometro bat, erregeleta bat eta esku-liburua banatuko dira.



ARGAZKIAK: ONDIKOL/ TESTUA: MAITE OTEIZA

## Ehun dantzari inguru Iruritako Dantzari Egunean

Eguraldiaren baimenarekin, 3 eta 44 urte bitarteko ehun bat dantzari bildu zituen urriaren 9an Iruritan egin zen XIV. Dantzari Egunean. Ttikienek eman zioten saioari hasiera –Agurra, Zintadantza, Zagindantza–; eta mutil gazteek San Migel, Korteko paloteadoa, Binakoa eta Zintadantza dantzatu zituzten. Neskek Betelu, Kontradantzak, Larraindantza eta El Ciego eskaini zituzten. Dantzari tikiak Maribel, Pili, Ixa eta Andresekin aritzen dira dantzan; mutil helduak Puentxorekin eta neska haundiak, berriz, Kristobalekin. Dantza saioaren ondotik, eguerdian zikiro jatea izan zen trinketean Angel E., Pello G., Pello U., Jabiera V., Martin E., Maribel S. J., Jose Ramon Z., eta Guraso Elkarteko kideek antolatu eta prestatua. Azkenik Frantzisko Santxotena akordeoilariarekin giro ederrean eman zitzaion bestari akabaila. Gartzainen segitu zuen bestak.

Lehendabiziko saioa ortzegun honetan, hilak 28, egingen da. Eta hurrengoak azaroaren 11n eta 18an. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean eskainiko dira, 18:00etatik 19:30era.

Dohainik izanen dira, eta gaztelaniaz. Izena emateko epea urriaren 14an akitu zen.

**PROGRAMAREN XEHETASUNAK**  
CRANA Nafarroako

Ingurumen Arloko Baliabide Zentroak 2006an abiatu zuen Kyoto Etxebizitzak programa. Gerotik, Nafarroako 600 etxebizitzak baino gehiagok bat egin dute egitasmo honekin.

Eginzazu TTIPI-TTAPAren alde  
proiektu zenbakia:  
**15.996**  
zure laguntza eskertzeko,  
batik edo hiru gertaeratan dugu!

**SOULE**  
hileta artisa  
Tfn: 948 433 444  
Mfn: 948 433 444  
www.soule.com

**ANTXITONEA**  
Turismo  
24 hileta bitartekoa - Apartaketa  
Aire purua eta puzetas - Hart monka eta TH  
Gela berrak sialde eta berrak berrak

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
bostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo • braulio iriarte 33, 1ºD • 31700  
948250371 iñuñea • irabeko monastegia 62, 4ºC • 31011

**MENDIALDE**  
idea • Jatorria  
T: 948 453 060 • AMAIUR  
www.mendialdea.com

# BAZTAN

KULTURA → LIBURUTEGI BERRIA ZABALIK

## Azaroaren 3an egingen da liburutegi berriaren inaugurazioa

Urriaren 20az geroztik jendearentzako zabalik dago

### TTIPI TTAPA

Arizkunenea Kultur Etxean zuen egoitzari lekukoa hartuz, zabalik dago Merkatuko Plazan egin duten liburutegi berria. 378,88 metro koadroko instalazioak egokitzeko 668.000 euroko inbertsioa egin da eta zati horretatik 398.000 euro Espainiako Gobernuaren Tokiko Estatu Funtsatik bideratu dira. Gainerako 270.000 euroak Udalarren esku gelditu dira. Helduen eta neska-mutikoen gela bana, erabilera anitzeko bertze gela bat eta sei ordenagailurekin bertze informatika eremu bat ego kitu dituzte.

Urriaren 20an zabaldu zituen ateak, baina inaugurazio ofiziala azaroaren 3an egingen dela aurreikusia dago.

### Almandozko zeharbideko obrak gibeleratuak

Almandozko zeharbidean egitekoak diren berritze lanak ez dira 2012a baino lehen egingen. Hala erabaki zuen Udalak urriaren 13ko bilkuran. Obra hauen aurrekontua 916.765 eurokoa da baina Nafarroako Gobernuak 714.790 euroko dirulaguntza iragarri du. Baina dirulaguntza horren zati bat 2012a baino le-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Liburutegi berriaren irekiera urriaren 20an egin zen, eta horren harira, Pasadas las cuatro taldeak *Ateak edonon sortzen direnean* antzezlan eskaini zuen. Ttikien arreta bereganatu zuen.

hen ez da ailegatuko eta hori da obrak gibeleratzearen arrazoia. Izan ere, laguntza 2012ra arte ez etorrita, Udalak aitzineratu beharko luke dirua, eta antza, ez da momenturik egokiena.

### Funtzionarioen soldatak murriztu

Defizit publikoa jausteko helburuarekin, ordainsariak murriztuko zaizkie udal funtzionarioei. Nafarroako Parlamentuak ekainean onartu zuen defizit publikoa murrizteko neurrien Foru Legea, eta horren harira erabaki zuen urriaren 13an Udalak Baztanen ere legea indarrean paratzea. Legean aurreikusitako murrizketak egingen zaizkie langileei. Hala, alkatearen eta A maila duten langileen ordainsaria %6,7 murriztuko da eta zinegotziena %5.



Heriotza

Pedro ARANGUENA

Joan da langile bataloietan ibili zen *Bixkai*

Sortzez bizkaitarra baina Iruritan bizi zen Pedro Aranguena *Bixkai* urriaren 3an hil zen 97 urterekin. Franco garaiako presoekin osatu ziren langileen bataloietan ibilitakoa zen, eta Iruritatik Artesiagarako bidea egitera behartu zituzten presoetako bat izan zen. Maiatzean omendua izan zen, Baztanen halabeharrez lanean aritu ziren bertze presoekin batera.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

### Zikoinak Iruritan

Orain aste batzuk iruritarren sorpresarako, bisita berezi bat izan zuten herrian. 30en bat zikoin elizako dorrean eta Gontxeko gruan pausatu ziren. Gure inguruan ez da ohikoa hegazti hauek ikustea klima dela-eta, baina tarteka bakkaren bat galdu eta hemen agertzen da. Oraingoan, halere, talde ederra etorri zen. Iperburutik hiltegiaren gibebeko alderat gan ziren, behiak harrituak eta izutuak geldituz. Biharamunean, oraindik zortzi zikoin Irurita eta Gartzain aldean indarrak hartzen ari ziren bidaiarekin segitu aitzinetik.

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
T. 948 581 448 M. 630 354 818

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO



# SENPERE

GIZARTEA → PROTESTAK

## Herritar andana erretiroaren erreformaren kontrako mugimenduan

Ortzegun honetan eta azaroaren 6an mobilizazio gehiago egingen dira

**Franck DOLOSOR**

Azken asteetan, protesta aintz iragaiten ari da herri aintzetzan Frantziako Gobernuak egin nahi duen erretiroaren erreformaren kontra. Baionan manifestaldi jendetsuak egin dira, ondoko argazkian ikusten ahal den bezala. Urriaren 19an, milaka lagun ibili ziren Baionako karriketan barna, hauen artean hamarnaka herritar, adin guzietakoak, eta iritzi eta sentsibilitate aintzetzakoak. Hala ere, denek bat egin dute ez baitute batere begi onez ikusten erreforma. Gure herrian grebaren eragina sumatu da eskolatan bereziki eta pixka bat zerbitzu publikoetan. Mobilizazio berriak egingen dira ortze-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Milaka lagunek parte hartu zuten urriaren 19an Baionako karriketan egindako protestan, tartean hainbat herritarrek.

gun honetan, urriak 28, eta bertze bat azaroaren 6an, larunbatarekin.

### San Martin

Hazilaren 11, ortzeguna, besta eguna izanen da aurten ere 1914-18ko gerlaren armistizioa gogoratzeko. Goizean, meza eta omenaldia egingen dira elizan eta horren aitzinean den hilen oroitarriaren inguruan.

Besta egun hau baliatuz, herriko saltzaileek animazioa apailatu dute beren lana erakusteko lbarrungo Inharrera baserrian. Erakusmahaiak prestatuko dituzte bakoitzaren lana zer den erakusteko. Moda desfile bat egingen dute laster Karrika Nagusian idekiko den jantzi saltegi bateko arropekin. Herriko hainbat elkartetako kideek parte

hartuko dute desfile deigarri huntan. Bertzalde, Artxeloak taldeak alaituko du eguna. Hamar bat mutikok elgarrekin kantatzen dituzte euskal kantu xahar eta garaikideak. Egun atsegina pasatzeko mentura, dudarik gabe.

### Adiskideen biltzarrak

Ohiturari jarraikiz, udaz-

ken huntan ere klaseetako elgarretaratzeak ospatuko dira aspaldiko lagunak berriz elgar ikus dezaten. Gisa huntan, 1955an sortu diren senpenterrek biltzarra dute azaroaren 12an Arocena ostatuan elgarrekin afaltzeko. Izenak eman Estebe Fagoagari deituz. Bertzalde, 1940eko herritarrek Bonnet ostatuan dute hitzordua hazilaren 7an.

### Bertsu saioa Larraldean

Matxin Irabola Senpereko bertsulariaren omenaldia azaroaren 28an igandearekin ospatuko da Amotzen, Larraldean. Bertsulari huri buruzko biografiaren aurkezpenaren ondotik 16:30ean, bertsu saioaz gozatu ahal izanen dute bertsuzaleek. Untsalaz, lau lagunek kantatuko dute 18:30ean: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Fermin Mihura eta Mixel Aire *Xalbador II.a*. Xehetasunak ondoko TTIPI TTAPAN.

Estalera igotzea... ez da aztopol  
plataformak  
igogailu bereziak  
auki bereziak...

**Behetik**

Aforpo-txiki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888  
www.behetik.com

**MONTXO OSTATUA**

Dantxarinetik  
2 km-tara

**ТАВAKO-DENDА**  
**АНЗАН-БОРДА • ВРДАЗУБИ**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!

Berria erosi taldea

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 299 131  
Ezpeletan 49000, 3 km  
LEZARREN



EHIZA → DENBORALDI BERRIA

## Lizarrietako sareetan sasoi berria hasi da

Paul Pradère arduradun historikoa agurtuz ireki dute sasoi

### Joanes eta Patxi

Urtero bezala, Sarako eta Etxalarko ihiztariak Lizarrietako kape-tetara upatu dira usoen goaitzera.

Sarako sareetan, sasoi Paul Pradère sare-ar duradun historikoa agurtuz ideki dute. Duela 60 urte hasi zenetik, Pradère jaunak ditu sa-reak jautsi egun bakar bat huts egin gabe. He-mendik goiti zerua he-ritik begiratuko du, bai-na segur da bere jaki-tatea hangaina egonen

del. Gazteenak ere Paulen etxetik pasatzen ahalko dira balio handi-ko aholkuen entzutera. Etxalarren, berriz, iazko udazken mugituaren on-dotik, sareak berriz eza-ri dituzte arbasoen ihi-za eta ondarea manten-tzeko asmoarekin.

Lepoaren bertze al-dean, Ahuntz bizkar eta Gaztain lepo bazterre-tan nahiz eta urriko le-hen egunetan uso gutti izan, ihiztariak tiro-pos-tuetan prest dira.

### Griparen kontrako xertoa

Griparen kontrako xertoa Herriko Etxean iraganen da ortzegune-an, urriak 28, 10:00eta-tik 11:30era. Zuen xer-toarekin etorri behar da.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Urria uso guttirikin hasi dute ihiztariak.



ARGAZKIAK: MAIDER OLASSO

### 120 lagun kantu afarian

Sarako Kantariak taldeak urriaren 9an antolatu zuen afarira 120 lagun hurbildu ziren. Amaiurko kantu taldea, Senpere Kantuz taldeko kide batzuk eta Bankako kantari batzuen tartean, saratar andana ere etorri zen. Bertaratu zirenek gualdia itsuski pasatu zuten.

HERRIKO ETXEN  
EDXNTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Maitzen eta Werrirque  
SARA

BIDASOA  
TURKIAK - PERTSIANAK  
ESTONIAK - AUTONIAK  
MEDITERRANEA - BERRIARRAK  
T.F. 943 61 50 60  
Auzoko Lepoa eta Etxalarko  
IRUN - BERRA

m bentamiguel  
denda, jatebidea eta ostalua  
Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeratu  
Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdategia  
Ibardingo Lepoa - T: 948 631 209

## EZKONTZAK

**Joseba Otxandorena Grazena** eta **Nerea Zubillaga Olano**, Donamariakoa eta Leitzakoa, urriaren 9an Donamarian.

**Juan Jose Indakoetxea Goizueta** eta **Larrait Mendizuri Arbelaitz**, Goizuetakoak, urriaren 15ean Goizuetan.

**Josu Gonzalez Egilegor** eta **Sophie Partaburu Haurie**, Irun eta Biarritzakoa, irailaren 25ean Lesakan.

**Borja Garcia Alzuguren** eta **Ruth Vazquez Tainta**, Lesakakoak, urriaren 10ean Lesakan.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Aitzol Zabaleta Fernandez**, Anizkoa, urriaren 10ean.

**Mattin Leiza Baleztena**, Iturengoa, urriaren 16an.

**Aroa Bertiz Juanenea**, Sunbillakoa, urriaren 3an.

**Nahia Ugartemendia Agesta**, Sunbillakoa, urriaren 18an.

**Oier Etxeberria Luis**, Lesakakoa, urriaren 11n.

**Aiur Ugartemendia Mendizabal**, Leitzakoa, urriaren 6an.

**Tasio Lizarraga Mendia**, Leitzakoa, urriaren 11n.

**Bixente Itxuribehere**, Sarakoa, irailaren 28an.

**Imanol Berasategi**, Sarakoa, urriaren 7an.

**Laura Boyer**, Sarakoa, urriaren 7an, **Christian Boyer**, Sarakoa, urriaren 7an.

**Peio Leizagoien**, Sarakoa, urriaren 15ean.

## HERIOTZAK

**Blas Erbiti Treku**, Leitzakoa, urriaren 5ean, 65 urte.

**Francisco Juantorena Mariezkurrena**, Ezkurrakoa, urriaren 5ean, 87 urte.

**Maria Pilar Galilea Plaza**, Berakoa, urriaren 6an, 53 urte.

**Migel Iturrarte Zabaleta**, Leitzakoa, urriaren 6an, 75 urte.

**Juan Angel Goñi Goñi**, Lekarozkoa, urriaren 8an, 65 urte.

**Rufina Elizalde Sansiñena**, Zubieta-koa, urriaren 12an, 85 urte.

**Marcelina Elizalde Etxenike**, Zigakoa, urriaren 12an, 87 urte.

**Melanie Alejandra Nasinba Tubon**, Elizondokoa, urriaren 12an, urte bat.

**Martina Larrañaga Telletxea**, Etxalarkoa, urriaren 14an, 91 urte

**Francisco Bergara Almandoz**, Arantzakoa, urriaren 20an, 58 urte.

**Magdalena Arizkorreta**, Sarakoa, urriaren 16an, 84 urte.

### Asier TELLETXEA TELLETXEA V. URTEURRENA



*Zure bizitzak hurbil zituen hasiera eta amaiera udazkenean orbel bihurtuz hosto gehienen antzera baina norbaitek maite duena ez da iristen hiltzera lehen gurekin bizi zinena guregan bizi baitzera.*

### Rufina ELIZALDE SANSIÑENA 1925/07/13-2010/10/12



*Amona zu izan zinan etxe hontako pilare une askotan berriz guk behar genuen zutabe. Gure artetik joan zara guk desiorik gabe ea ohitutzen geran bizitzera zu gabe izan zaitex zeruan zorionaren jabe*



### Jose Mari BERRUETA ZUBIETA

Etxalarren, 2004ko urriaren 31n

VI. URTEURRENA

*Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.*

ZURE FAMILIA



### Francisco JUANTORENA MARIEZKURRENA

Ezkurraran, 2010eko urriaren 5ean

*Pena ematen digu agur esatea eta ezin duzu kendu gure nahigabea. Beti gure bihotzetan egongo zarela nahi dugu jakitea.*

EZKURRAKO FAMILIA



### Marcelino VERGARA LARRALDE

*El mozo de Etxalar*

*Gure familian beti jakinen dugu Etxalarko morroskoa zein gizon ona izan zen. Donostian eta Etxebertzean bizitako momentu on guzietatik. Harro gaude zure zintotasun, zure lana eta zure dotoreziagatik.*

IRIGOIEN-OTIÑANO FAMILIA

PILOTA → TURISMOA, KULTURA ETA KIROL IBILBIDEA

## Nafarroako 39 herritan barna Pilotaren Ibilbidea osatu da

Eskualdeko 14 herri Turismo Sailak Pilota Federazioarekin egin duen ibilbidearen barne daude

### TTIPI-TTAPA

Pilotarako Nafarroan dagoen afiziotik abiatuta, Pilotaren Ibilbidea sortu du Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak, Nafarroako Pilota Federazioarekin elkarlanean. Ekimenaren helburua bisitarietako turismo, kultura eta kirol eskaintza egitea da eta Nafarroako 49 herri hartu dira horretarako. Turistei pilotaren hainbat modalitate erakutsiko zaizkie.

Aipatu, bertzelde, Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, laxoa eta paxaka ondasun ukiezin izendatzeko aukera aztertzen ari da.

### SEI EREMU DITUEN IBILBIDEA

Ibilbideak sei eremu hartuko ditu, eta horietatik lehenbizikoa eskualdean barna igaroko da. Eremu honetako ibilbideak, Atlantikoa deiturikoak, hiru zati izan ditu.

Lehendabiziko zatia Baztanen barna egingen da eta **Arraioz, Elizondo, Elbete, Azpilkue-ta, Irurita** eta **Erratzu** hartuko ditu. Herri horiek aukeratzearan arrazoi hau izan da Nafarroako Gobernuak azaldu duenez: «torneoak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Laxoako partida bat Oizko frontoian. Nafarroako Gobernuak laxoa eta paxaka ondasun ukiezin izendatzeko aukera aztertzen ari da.

egiten dituzte joko zuzena zertan den erakusteko, eta hori da pilotaren jatorria».

Bigarrenen zatian, **Narbarte, Doneztebe, Oiz, Sunbilla** eta **Lesaka** sartu dituzte. **Narbarte** trinketea duela eta laxoa lehiaketako partidak egiten dituztelako». **Sunbilla** ere sartu dute: «udaletxe arkupean biltzen ziren herriko pilotazaleak». Eta arrazoi bera erabili dute **Lesaka** hautatzekoan ere.

Hirugarren zatian **Eratsun, Leitza** eta **Goizueta** hartu dira, «hiru herri horietan esku-pilotari ospetsuak jaio

direlako». **Eratsunen** kasuan, Retegi anaiak: «Juan Ignacio Retegi (Retegi I.a) eta haren iloba Julian (Retegi II.a), Eratsunen jaio ziren eta txapelketa asko irabazi zituzten 70. hamarkadatik 90. hamarkadara. **Leitzari** dagokionean, «pilotari askok ikasi dute pilotan jokatzeko plazako frontoian, eta gero profesional gisa aritu dira». Horren adibide Bengoetxea eta Barriola familiak aipatu dituzte. **Goizueta** ere ez dute aparte utzi, Olai-zola pilotariak bertokoa direlako.

### EUSKARRIAK LAU HIZKUNTZATAN

Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dauden euskarrak paratuko dira herriz herri. **Donezteben, Elizondon, Leitza** eta **Lesakan**, erraterako, informazio panelak (1,6 x 1,2 metrokoak) paratuko di-

ra ibilbideen mapa eta informazio orokorra eta herriko informazio zehatza emateko. **Arraioz, Eratsun, Erratzu, Goizueta, Irurita** eta **Sunbilla**n, 0,3 x 0,4 metroko plakak paratuko dira eta **Azpilkue-ta, Elbete, Elizondo** (Antxitonea trinketea), **Narbarte** eta **Oizko** frontoietan tikiakoak, 0,2 x 0,2 metrokoak.

### Bortzirietako eskuz binakako txapelketa abian

Hasi da Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren hamargarren edizioa. Urriaren 9an hasi ziren partidak, eta geroztik, larunbat goizetan Lesakan eta igandetan Beran eta Etxalarren jokatzeko ari dira. Guztira 41 bikote ari dira parte hartzen eta finalak azaroaren 27an, jokatu dira Berako Ezte-gara pilotalekuan.

### FLASH

#### Bergara I.a hil da

Gaixotasun luze baten ondorioz, urriaren 10ean hil zen Donostian Marcelino Bergara Etxalarren morroskoa izenarekin ezagutu zen pilotaria, 67 urte zituela. Bergara I.a, aurrelari handia izan zen, eta 60. hamarkada akaberan eta 70. hamarkada hasieran nabarmendu zen. 1943ko maiatzaren 16an jaio zen Etxalarren eta bere garaipenen artean, Espainiako binakako txapela (1962) eta afizionatuetako munduko txapelketa dirapagarriena. Profesionalen mailako banakako txapelketa ere izan zen (1965). Urriaren 11n egin zituzten bere aldeko hiletan elizkizunak Etxalarren.

#### Kirol Jokoetan izena emateko epea zabalik

XXIV. aldiz Nafarroako Kirol Jokoak paratu ditu abian Nafarroako Herri Kirol Federazioak, Kirol Institutuarekin batera. Probak martxoan hasiko badira ere, izena emateko epea irekita dago eta Federazioan egin behar da, 948 450900era deituta. 2011ko otsailaren 4an bukatuko da horretarako epea. Kirol Elkarte bezala erregistratu izatea eta parte hartzaileak 1995etik 2000. urtera bitartean jaiotakoak izatea eskatuko da. Hiru mailatan banatuko dira gaztetxoak: kimuak (1999-2000 urteetan jaiotakoak) konbinatuetan bakarrik ari daitezke; eta haurrak (1997-1998 urteetakoak) eta kadeteak (1995-1996 urteetakoak) proba konbinatu eta soliketan.

Hogei urteko beratarra da Unai Rodriguez Korta. Zazpi urte zituenetik 16-17 urtera arte igeriketan ibilia da. Urtebeteko atsedenaldiren ondotik, waterpoloan hasteko animatu

zuten. Probatu eta gustatu. Hasiera batean, taldeko gazteena izaki, gogor xamarra egin zitzaion arren «ederki hartu ninduten eta talde giro on horrek lagunduta gaur arte

hortxe gabilta». Irungo Oiasso 1766 bere taldeak lehen mailara igotzea lortu zuen azken denboraldian eta aurten Bidasoa XXI izenarekin ureratuko dira.

Unai RODRIGUEZ KORTA | Berako waterpolo jokalaria

# «Igerian ongi egiteaz gain, teknikak ere garrantzia du waterpoloan»

A. AROTZENA | BERA

Waterpoloa ez da kirol ezaguna gure inguruan. Gutti izanen dira, telebistatik ez bada, partida bat ikusi dutenak. Baina ikusi ez ezik, waterpoloan jokatu eta gozatu egiten du Unai Rodriguez beratarrak Irungo taldean. Kanpotik begiratura, igeriketa eta eskubaloien arteko nahasketa bat dirudi kirol honek. «Gure kasuan gehienak gara igerilari ohiak—dio Unai—Honek oinarria ematen dizu, erritmoa jartzeko aukera zenbait momentutan. Baina teknikak garrantzia izugarria du, posizioak, trantsizioak ongi egitea... Jaurtiketarena ere teknikaren parte da, futbolean bezala hemen ere badaude berezkoa duten jaurtitzailen onak». Waterpoloan aritzeko beharrezkoak diren ezaugarriez galdetu diogunean, «gogoa eta konpromisoa» erantzun digu. «Azken finean gustokoa dugulako eta taldegiro ona dugulako aritzen gara. Hortik aitzinerat egia erran bakoitzak ahal duena egiten du...». Kirol honetan ur azpiko joko zikin aunitz izaten dela ere aditzen da. «Azkenean jokoaren parte da, ez? —onartu du Berako kirolariak—Ezazgarri nagusienetakoa erranen nuke nik. Presioa handia izaten da, gainean defendatzen da



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Unai Rodriguez gustura ari da waterpoloan Irunen. Aurten, lehen mailan ariko da.

normalean eta posizioa lortzeko saiakeran agertzen da ur azpiko joko hori. Bertzalde, kirolaren parte den lehia hori urrunago joaten denean agertzen da joko zikina, batzuetan hartzea tokatzen den bezala bertze batzuetan eman behar izaten da».

## LEHEN MAILA MANTENTZEA HELBURU

Denboraldi bikaina egin ondotik, lehen mailara igotzea lortu du Irungo Oiasso 1766 taldeak. «Urte batzuz mugatzen hontan ibili ondotik ilu-

## UR AZPIKO JOKOA

«Presioa handia da, gainean defendatzen da eta posizioa lortzeko saiakeran agertzen da ur azpiko joko hori. Kirolaren parte den lehia hori urrunago joaten denean agertzen da joko zikina».

## EGUNERO BI ORDU

«Entrenatzaile berriaren fitxaketarekin gauza dexente aldatu da. Eguneroko bi orduko entrenamenduak egiten gabilta orain».

sioa ematen du salto horrek. Entrenatzaile profesional baten fitxaketak aunitz ikasteko aukera ematen dizu», dio Rodriguezek. Maila gogorra izanen dela kontuan hartuta, mantentzea izanen da helburu bakarra. «Otsailerarte talde guztiak ligila gisako bat jolas-tuko dugu, hortik aitzinerat sei taldek igoera fasea jokatuko dute eta bertze seiak jeitsiera jokatuko dugu. Honek denbora emanen digu erritmoa hartzeko, eta otsailetik aitzinera maila mantentzen saiatzeko,

horrek izan behar baitu, dudarik gabe, gure helburua».

Igoera honek izen aldaketa ez ezik (Bidasoa XXI dira orain), bertze zenbait ere ekarri ditu taldean. «Entrenatzaile berriaren fitxaketarekin aurten gauza dexente aldatu da. Irailaren 1ean hasi genuen aurrendenboraldia eta egunero bi orduko entrenamenduak egiten gabilta. Egia da, orain arte gure kabuz moldatu garen arren, hemendik aitzinerat aukera paregabea izanen dugula gauza berriak ikasten joateko. Partiduei dagokienez desplazamendu haundiena Santoñara izanen dela dirudi, igandetan tokatzen ez den bitartean kontent!».

Lehenengo mailan ariko den taldeaz gain, bigarren mailan ariko den filial bat ere izanen dute aurtengoan eta hori begi onez ikusten du Berako gazteak: «Bigarren mailan aritzeak minutuak jokatzeak aukera emanen du, oraindik zein taldetan jokatuko duan ez dakidan arren minutuak edukitzeko aukera hau ez da batere txarra. Lehen taldeko gazteena izanik, filialean jokatu behar izanez gero ez dut inolako arazorik edukiko, ez da bereziki arduratzen nauen gauza bat. Beharra dagoen momenturako prest egonen gara».

PILOTA → MUNDUKO TXAPELKETA PAUEN

# Bi txapel eskuratu dituzte eskualdeko pilotariek Munduko Txapelketan

Unai Onsalok eskuz banaka eta Migel Mari Irigoienek binaka irabazi dute

## TTIPI-TTAPA

Frantziako Pau hirian urriaren 1etik 10era jokatu zen Munduko Pilota Txapelketan emaitza onak lortuta itzuli ziren etxera eskualdeko pilotariak. Guztira bortz izan dira ingurukoak, eta bi modalitatetan urrezko dominak lortu dituzte.

**Unai Onsalok** aresorak frontoi osoan eskuz banakako modalitatean eskuratutako garaipena da nabarmenetzeko emaitzetako bat.



ARGAZKIA: FIPV

Migel Mari Irigoien Mololo lesakarra pilota jotzeko momentuan. Binaka txapelkun izan da.

tatean eskuratutako garaipena da nabarmenetzeko emaitzetako bat.

Aresoko gazteak mexikarra izan zuen aurkari finalean eta 22-20 irabazi zuen. Modalitate berean, laugarren postuan ere inguruko ordez-

bazi zuen. Modalitate berean, laugarren postuan ere inguruko ordez-

kari bat gelditu zen. **Tony Huarte** amaiurtarra AEBetako taldearekin aritu zen eta laugarren izan zen.

Eskuz binakako txapelketan, **Migel Mari Irigoien Mololo** lesakarra ere garaile izan zen. Untoria lagun zuela, 22-17 irabazi zuen. Kategoria berean, **Xabi Arraztoa** iruritarak Frantziako taldean jokatu zuen, eta Gognyrekin bikotea osatuz hirugarren sailkatu zen.

Pala motzaren modalitatean, bertzalde, **Xabier Zozaia** lesakarra azpitxapelkun gelditu zen. Velilla lagun zuela, finalean 39-40 galdu zuen.

SOKATIRA → GOMA GAINEAN

# Larunbat honetan abiatuko da Nafarroako Sokatira Txapelketa

Lesakako emakumezkoek ez dute parte hartuko

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, larunbat honetan, urriak 30, emanen zaio hasiera Nafarroako Sokatira Txapelketari. Gizonen zein emakumezkoak ariko dira le-

hian, baina emakumezkoen taldeek zortzikoa osatzeko arazoak dituztela-eta, sei laguneko taldeak izanen dira. Gizonetan, berriz, zortziko txapelketa izanen da. 630 eta 590 kiloko kategorietan ariko dira gizonen taldeak eta 375 kilotan emakumezkoak.

Amaiurkoak gizonen bi kategorietan parte hartuko dute eta emakumei dagokienez ere, Amaiurrek



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Emakumezkoak zortziko taldeak osatzeko arazoak izan dituzte aurten eta seiko txapelketan ariko dira. Argazkian ageri diren Beti Gazteko neskek aurten ez dute parte hartuko.

taldea aterako du. Lesakako Beti Gazteko, ordea, azkenean ez du parte hartuko.

## EGUTEGIA

Gizonen taldeetan bi jardunaldi jokatu dira liga sistema erabiliz eta emakumezkoen kasu-

an, berriz, hiru jardunaldi.

Larunbat honetan jokatu dena 630 kiloko lehen jardunaldia izanen da; azaroaren 6an 630 kiloko bigarren jardunaldia eta 375 kiloko lehena egingen dira; azaroaren 13an 590

kiloko lehen saioa eta 375eko bigarrena jokatu dira Jauntsararen; azaroaren 27an, azkenik, 590 kiloko bigarren jardunaldia eta 375 kiloko hirugarrena egingen dira Zugarramurdin.

Tiraldi guztiak 17:00etan hasiko dira.

## urriak 28 - azaroak 10

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>ZUGARRAMURDI   2010.11.06</p> <p><b>Sorginen epaiketaren 400. urteurrena gogoratzuz</b></p> <p>Sorgin izatearen akusaziopean epaitu zituztela 400 urte beteko direla eta herritar haien aldeko ospakizunak antolatuta dituzte Zugarramurdi.</p>	<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>ARANTZA   2010.11.01</p> <p><b>Baserritarren Eguna, Kultur Egunen egitarauaren barnean</b></p> <p>Baserriko produktuak eta tresnak, aziendak, taloak, gazta lehiaketa... Hori eta gehiago Ekaitza Elkarteak antolatuta, 10:00etatik aitzinera frontoian.</p>	<p><b>Kontzertuak</b></p>  <p>ELIZONDO   2010.11.07</p> <p><b>Faltriqueira talde galiziarra Folk Ametsetan</b></p> <p>Folk Ametsetan zikloaren barnean lehenbiziko kontzertua Galiziako emakume pandejoleen taldeak eskainiko du Arizkunenean 19:30ean.</p>
--	---	---

**Erakusketak**

ELIZONDO

**Arcade 64 Kolektiboa**

Urriaren 18tik azaroaren 6ra hainbat autoreren pintura erakusketa Arizkunenean.

**Gorputzaren amaiera arte garaikidea**

Azaroaren 10etik 28ra *Gorputzaren amaiera, terapiak proposatzen ditugu arte garaikide* erakusketa Arizkunenean.

BERTIZ

**Diana Iniestaren margo erakusketa**

Urriaren 1etik azaroaren 30era Diana Iniestaren *Juegos de luz* margo erakusketa Natur Parkean.

IRURITA

**Mikelperizenaren margo erakusketa**

Urriaren 4tik azaroaren 23ra Itziar Mikelperizenaren margo erakusketa Olarin.

ARANO

**Argazki erakusketa**

Azaroaren 13an Aranori buruzko argazkiak.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Kontzertu lirikoak**

Urriaren 31n Zarzuela eta Operako ariak eta duoak kontzertu lirikoak Arizkunenean, 19:30ean, Operaren Lagunen Gaiarre elkarteak Nafarroako Gobernuaren laguntza az antolatua.

**Gatillazo eta Ratakalba Lurren**

Azaroaren 6an Gatillazo eta Ratakalba taldeen kontzertua

Lur dantzalekuan.

Sarrera: 10 euro aitzinetik; 12 euro bertan.

**Folk Ametsetan zikloa**

Azaroaren 7an Faltriqueira talde galiziarren emanaldia Arizkunenean 19:30ean.

BERA

**Esloveniako abesbatza**

Azaroaren 1ean Esloveniako Orfej Choir abesbatzaren saioa Kultur Etxean 19:30ean. Berako Abesbatzak antolatuta.

**Bestak**

AURTIZ

**San Martin bestak**

Azaroaren 10etik 14ra.

ARANO

**San Martin Eguna**

Azaroaren 13an.

SENPERE

**San Martin Eguna**

Azaroaren 11n.

**Ospakizunak**

ARANTZA

**Baserritarren Eguna**

Azaroaren 1ean ospatuko da Kultur Egunen ekitaldi nagusia. Bertze ekitaldiak azaroaren 5 eta 6an.

BERA

**Mankomunitatearen Eguna**

Urriaren 31n Bortziritako Euskara Mankomunitatearen Eguna.

ELIZONDO

**Udazkeneko Feriak**

Urriaren 29an. Goizez azienda feria eta nekazaritza tresneriaren erakusketa. Egun osoan eskulangileen postuak. Arratsaldean pilota partidak eta arratsan musika plazan.

LESAKA

**Udazkeneko Azoka**

Azaroaren 7an antolatuta du Zerbitzuen Elkarteak frontoian, 11:00-19:00.

ZUGARRAMURDI

**Sorginen epaiketak 400 urte**

Azaroaren 6 eta 7an ekitaldiak urtemuga gogoratzeko.

GOIZUETA

**Zaharren Eguna**

Azaroaren 7an.

**Hitzaldiak**

LEITZA

**Orantzaro usadioa hizpide**

Azaroaren 5ean hitzaldia eta mahainguria liburutegian 19:30ean.

**Antzerkiak**

LESAKA

**Keinu Leihoak antzerki jardunaldiak**

Urriaren 30ean Azu-

## PROPOSAMENA

BERA

**XII. Kafe-Antzerki Zikloa abian**

Lesakan Keinu Leihoak antzerki zikloa itxi orduko abiatuko da Beran XII. Kafe-antzerki zikloa. Lehenbiziko emanaldia Gilkitxaro taldearen 8 begi antzezlanaren izenarekin da. Azaroaren 5ean izanen da ikusgai Bidaxka ostatuan, 22:00etatik aitzinera. Azaroaren 12an Lixoia ostatuan eta 19an Kaxerna Gaztetxean izanen dira hurrengo emanaldiak.



killat taldearen *Dantza bertikala* antzezlanaren frontoian 21:00etan. **Azaroaren 1ean** Oh La La taldearen esku-tik haurrentzako *Amets Fabrika* antzezlanaren Kasinoan 18:00etan.

BERA

**Kafe-Antzerki Zikloa**

**Azaroaren 5ean** Gilkitxaro taldearen *8 Begi* antzezlanaren Bidaxkan 22:00etan.

**Lehiaketak**

SENPERE

**Besten inguruko argazki lehiaketa**

**Urriaren 31 arte** Herriko Etxeak argazki lehiaketa antolatzen du. Gaia: bestak.

LESAKA

**Beti Gazte elkartearen Argazki lehiaketa**

**Urriaren 30a arte** aurkez daitezke lanak argazki lehiaketarako.

LEITZA

**V. Literatur Lehiaketa**

**Urriaren 30a arte** aurkez daitezke Leitzako Kultur Taldearen lehiaketarako lanak.

**Zinema**

LEITZA

**Denboraldi berria**

**Urriaren 29 eta 31n** *Eclipse* filma zinemaren. **Azaroaren 5ean eta 7an** Roman Polanski-ren *El escritor* filma zinemaren. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

ZUGARRAMURDI


**Zine eta sorginkeria zikloa**

**Urriaren 30ean** *Nicky, la aprendiz de bruja* haurrentzako filma 17:00etan Museoan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**




Nemesioren trikitixa

**PAKO ARISTI**

Elkar, 2010

Zergatik dio Nemesioren amak pertsonak diatonoak garela? Zergatik diote trikitixa ez dela Euskal Herrikoa? Zergatik diote Olentzero ez dela existitzen? Zergatik daude zientoka trikitixa armaruetan gordeta? Kezka askori egin beharko dio aurre Nemesiok. Abiapuntu horrekin, umeen «baka-rdadea», gezurraren «deskubrimendua» eta familia barneko «komunikazio falta» landu ditu idazleak. Pako Aristik haurrei zuzendutako liburua idatzi du, Javi Kintanaren marrazkiekin. Aristik dioenez, «txikitari, trikitixaren botoiak alkandoretan josteko zirela uste nuen. Horregatik hasi nintzen, badaezpada, pianoa ikasten, tekla zuriak eta beltzak serioagoak iruditzen zitzaizkidalako. Gerora deskubritu nuen, erromerietan, trikitixaren alaitasuna, martxa eta indarra, eta euskal trikitilarien bertuosismoa. Horregatik eskaini diet liburu hau trikitilariari, maitasunez beteta».

**Musika**



ERA

**ZEA MAYS**

Bonberenea Ekintzak, 2010

Zarata handirik atera gabe hasi ziren gure bela-zarriak laztantzen, eta halaxe joan dira apurka-apurka, kontzerturik kontzertu, diskarik diska. ERA, melodia, indarra eta emozioen uztarketa ezin hobea da. Oraingo honetan kantu zuzenen aldeko apustua egin du taldeak. Aitzineko lanetan eraikitzen zizuten garapen harmoniko eta biziei muzinik egin gabe, kantu zuzenak aukeratu dituzte langai, ekaitzaren erdian lurra jotzen duen tximistaren eragingarritasunarekin. Emaitzak ezohiko freskotasuna du. Urteak errepidean daramatzen lan talde baten jakinduria eta hasi berriaren irekidura uztartuz osatutako *cocktail* erakargarria da Zea Maysen hau. Melodia itsaskorrek, giro ingurutzailak, indarra, emozioa eta etengabeko bilaketa estetikoak osagai dituen jantzi ederra sortu zaio Zea Mays-i. Bitxikeria gisara, diskoari lau azal ezberdin diseinatu dizkiote.

**Internet**



Gure Txokoa elkarteak ere badu bere bloga

**GURETXOKOAEKARTEA.BLOGSPOT.COM**

Bazkideei Berako elkarteak ailegatzeko helburuarekin, Internet sarean bloga sortu du Gure Txokoa elkarteak (*guretxokoaelkarta.blogspot.com*). Webgunea edukiz osatzeko bazkide eta lagunen laguntza ere eskatu dute Berako elkarte handienaren webgunearen kudeatzaileek. Momentuan, futbol kamisetak salgai jarri dituzte eta horren berri ageri da blogean. Haurrenak 35 euro eta helduenak 45 euro balio dute eta ekipazio osoa nahi izanez gero, galtzak eta galtzerdiak barne dirala, haurrek 10 euro gehiago eta helduak 15 gehiago ordaindu beharko dute. E-mail bidez edo ortzegunetan 19:30ean lamoteneara agertuz lor daitezke. Horretaz gain, Larungo Igoerari buruzko informazioa, dantza taldearen blogarekin lotura eta bertze hainbat informazio interesgarri ageri dira, elkartruckerako sortutako orrian.

**Nire aukera**



**Bittor JAUREGI**  
Amaiurko abeltzaina

**«Abioiaren beharrik gabe, herriz herri ibili eta ezagutzea gustatuko litzaidake»**

Euskal zerria hazten ari da orai amaiur-tarra, bere garaian ostrukak edo karakolekin ere saiatu ondotik. Argi dauka: «Baserriak nahi baino asti gutixea go uzten du, eta gauza aunitz gustuko izan arren, ezin egin». Gogoko kontu horien artean, «negu partean ortziralero biltzen gara koadrila bat euskal kantutak ikastera», aipatu digu Bittorrek. Asteburuetan bertso saioak edo kantaldiak aditzera joaten da eta denbora izanez gero, «ingurua ezagutzea» gustatuko litzaidoke, «abioia hartu gabe, badugu zer ikusi Euskal Herrian». Mendian ez da sobera ibiltzen: «Gu mendian bizi gara eta mendian lan egiten dugu, baina ibili guti. Inurrategik zioen bezala, sherpek ez dute bere burua mendizalletzat, mendian bizi direlako». EHNE sindikatuarekin Europan barna egindako astebeteko bidaiak ere gogoratzen ditu Jauregik: «Ipar Irlandan aunitz gustatu zitzaidan, baita Westfalia ingurua ere Alemanian iparraldean».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala. ☎657 715243/657 799953.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**DONEZTEBE.** Rosa Seminarion, 3. solairuan dagoen pisua salgai. Eskailera batzuen bidez, trastelekura komunikatua. 3 logela eta 2 komun. Moleztatua. ☎679 109423.

**ETXALAR.** Lizaietako parajea zaharberritzeko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukalde bakoitza. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. 3. solairuan eta igo-gailuarekin. ☎948631381/697 436845/ elvetera@aol.com.

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze plazan 115m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, 2 bai-

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

nugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreintatu gabea. ☎630 948271.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**MUNARRIZ** (Goñi, Nafarroa). Etxebizita salgai (hiru solairutan 300 m<sup>2</sup> erabilgarri). Solairuetako bat moleztatua eta baratzea adosatua (138m<sup>2</sup>) eta bi lur eremu, 3.592 m<sup>2</sup> eta 661 m<sup>2</sup>koak. Guztia: 180.000 euro. Ikusteko larunbat arratsalde 17:00etatik 19:00etara. ☎948 278729/609 637535.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**ETXALAR.** Bi bizitzako etxebizitza lur eremuarekin errentan emateko. ☎662 244389/696 890471.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan eman

**ETXALAR.** Funtzionamenduan dagoen ile-apaindegia errentan emateko. ☎948 635025.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**LESACA.** Nabaz auzoan 2.600 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. Bista ederrak, oso eguzkitsua eta lautada edo zelai haundiarekin. ☎661 219827/ terrenolesaka@hotmail.com.

**ZERBITZUAK**  
denetarik**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urriaren 8tik 16ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 30,00 € (=)

**Zerri gizona**  
1,018 € kilo. (-0,058)

**Zerramak:**  
0,400€ Kg/bizirik. (-0,030)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,92 (+0,02)  
**1.koa** 3,61 (+0,03)  
**2.koa** 3,08 (+0,03)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,00 (+0,02)  
**1.koa** 3,71 (+0,03)  
**2.koa** 3,25 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 200,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,40/8,10  
8-10 kilokoak: 6,30/6,60

ke. Ahal bada, goizez edo orduka. ☎660 620542.

**DONEZTEBE.** Emakume bat haurrak zaintzen ariko litzateke. Orduz gabea. Esperientzia handiko ama. ☎679 210910.

**BERA** edo **LESAKAN** emakume bat garbiketan edo jatetxe batean sukaldean edo zerbitzatzen ariko litzateke arratsalde. ☎626 852937.

**NAFARROA.** Neska bat asteburuetan aritzeko lan bila. Norbere autoarekin. ☎667 230372.

**MOTORRAK**  
salgai

**Golf TDI** salgai, egoera onean. ☎650 064912.



**Mercedes c220cdi,** 150 CV sport coupe salgai, 2006koa, 75.000km. Iruñeko Mercedes etxean erosi eta errebisio guztiak bertan eginak. Egoera ezin hobean. ☎699 122815 / 600 699266.

**LANA**  
eskariak

**ELIZONDO.** Esperientziadun andre gazte bat etxebizitza garbitzen, plantan... ariko litzate-



**Opel Corsa 1.7 DTI** autoa salgai. 2001ekoa. 185.000 kilometro. Prezio negoziagarria. ☎626 349503.

**Opel Astra 1.7 DTI**, 2002. urtekoa salgai. 3.000 euro. Egoera onean eta ITV pasatu berria. ☎686 108298.



**MOTORRAK**  
tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**ANIMALIAK**  
oparitzeko

**ITUREN.** Bi katakume beltz (emeak) oparitzeko. Ama ehiztari bikaina. ☎948 451787.

**ANIMALIAK**  
salgai

**Hiru asto eme** salgai. ☎667 942161.



tua. ☎659 867287 /699 461394.

Koxka etxeko **bitrina erakustegia** salgai, 2,5 metroko luzera dauka eta orain dela 5 urte erositakoa. Oso gutxi erabilia. ☎620 735089.



**Belar idorren boloak** salgai. ☎660 393436.

Ferroligasoleozko **berogailua** salgai. Gutxi erabilia eta egoera onean. ☎618 962777.



**Samsung TFT telebista** salgai. 24" wide, SincMaster P2470 HD (5ms). TDT sintonizadorea. Pa-

noramikoa, 1.920x1.080 pixel (Full HD), HD sintonizadore digitalarekin (TDT). Horrekin telebista digitaleko kateak eta irratia digitalak eskura (Baztanen 46 kate digital eta 4 analogiko). la berria, lau hilabeteko erabilera. Prezioa: 200 euro. ☎948 581420.



**ttipi-ttapa**

etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:

**(0034) 948 63 54 58**

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



# BERAKO XII. KAFE-ANTZERKI ZIKLOA 2010

antolatzailea

leguntzaileak



azaroak **5**, 22:00etan, Bidaxka ostatuan

**8BEGI** Gilkitxaro taldea

azaroak **12**, 22:00etan, Lixoia ostatuan

**ETA KARMELE?** Ainhoa Alberdi&Iraia Elias

azaroak **19**, 22:00etan, Kaxerna gaztetxean

**KLOWNTUZ, MENDIA!** Zurrumurru taldea



# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Berako **IRATI PONBAR** LARRALDE gure printzesak 5 urte bete ditu urriaren 11n. Zorionak!




**XANET APEZTEKOA ETXEBERRIA** goizuetarrak urriaren 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren eta bereziki Aiora arrebaren partetik.



Berako **GURE PATITOK** urriaren 23an 9 urte bete ditu. Zorionak!!! Eta dantzara!!! Muxu haundia familiaren partetik.



**NAROA GARBISU ETXABIDE** lesakarrak azaroaren 10ean 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Zugarramurdiko **MARIA ETXABE OLHAGARAYK** azaroaren 14an 8 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



**LAURAK** urteak bete dituzten urriaren 16an. Zorionak Lesakako familiaren eta Rufus eta Argiren partetik.



**ITSASOK** 10 urte bete dituzten urriaren 23an. Zorionak Izarxokoko eta Rufusen partetik.



Sunbillako **KLEMENTE IRIARTE IBARRARI** aunitz urtez azaroaren 6an urteak beteko dituelako. Eguna ongi pasa dezala bere familia guztiaren eta bereziki bere alabatxo Iraide eta Garaineren partetik. Mila muxu attatto.



Zure lagunek maite zaitugu herriak ez du etsi. Mendia, euskara, Euskal Herria ezin bazterrean utzi zure umore, zaletasunek gudan dutenez garrantzi bortsu urte luze pasatu arren ezingo zaitugu ahantzi.

**ZURE LAGUNAK**



Zorionak **SARAH!!** 2 urte haundi beteko ditu gure matxiak azaroaren 1ean. Muxu pila familia guztiaren partetik.



Zorionak **TXIKITINA!!** Bi muxu goxo zure lehengusina Leireren partetik.



Urriaren 18an, Berako **LEIRE GOMEZ GOIETXE** neskatxa pinpirinak 7 urte bete zituen. Aunitz urtez familiaren partetik!!




**AIMAR ARANDIA ELIZONDO** Berako gizontxoari zorionak eta hiru muxu haundi guraso eta bereziki arreba Ainararen partetik. Aupa gizon!



**NAHIA ETA OIHAN PIKABEA** gure etxeko errege-erreginek 4 urte beteko dituzte azaroaren 4an. Zorionak eta muxu pila!!! Prest kontuko dugu tarta goxo-goxoa jateko. Zuria eta beltza!!



Donostiako **MIKEL JIMENEZ ZAPIAINEK** 5 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak eta muxu pila bat aita, ama, arreba Sofia eta familia guztiaren partetik.



**AIMAR MIGELTORENA MUGIKAK** 5 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak etxeko partetik, atta, ama eta Ane.



Sunbillako **AIMAR MIGELTORENA MUGIKAK** 5 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak bihurri! Ia 5 urte zeinen haundia! Muxu potolo-potoloa Petrisanzeneko familiaren eta bereziki izeba Koxe eta osaba Jonen partetik. Prestatu berendu goxo-goxoa.

EGUTEGIAK

2011 EGUTEGIA ETXALARKO ESKOLA

2011 SUNBILLAKO ESKOLA

29x42cm 135 gr Paper distiratsua	
25.....	75€
50.....	80€
75.....	85€
100.....	89€
250.....	111€

29x42cm 300 gr Kartulina distiratsua	
25.....	134€
50.....	135€
75.....	136€
100.....	137€
250.....	145€

\* Prezioak BEZ gabe

**Kulturkari**  
www.grupomugikak.com

*Sekulako eskaintzak*

Anduetzeta 12  
31760 ETXALAR  
Tel. 948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.net  
www.kulturkari.com

# GATILLAZO +RATAKALBA

AZAROAK  
**6**  
LARUNBATA

23:30 - 19C Auzatik, 12C Berrin  
Sajimenta puntuak - Euzonda: Antxitonak, Tackoto | Lesaka: Akasari | Irujo: El Infierno

# LURDJOTAK

AZAROAK  
**13**  
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik  
02:00etatik aintzera 9C eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



# 6.URTEURRENA GOZATEGI

AZAROAK  
**20**  
LARUNBATA

00:00 9C

# LURDJOTAK

AZAROAK  
**27**  
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik  
02:00etatik aintzera 9C eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# ETA ABENDUAN... ESNEBELTZA

ABENDUAK  
**4**  
LARUNBATA



garagardotegia

**MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...**  
OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA  
ERREZERBAZ TEL. 948581863



WWW.LURDJOTAK.COM



**NAFAR MENDI**  
merkatalgunea  
Arraioz | Baztan-Bidasoa

**HIPERSIMPLY** Baztan  
Bidasoa

**ABANTAILAK BESTERIK EZ**

HARATEGIA 10€ baino gehiagoko erosketarengatik

**BAGUETTEA OPARI**  
0,42€

ARRAINDEGIA 12€ baino gehiagoko erosketarengatik

**ZAINZURI-PUNTAK OPARI**  
1€

Erosketa bakoitzean 1€, 2€ eta 3€ko BONOAK hartuko dituzu hipermerketuetan trukatzeko

**GASOLINA DESKONTUA**  
2€

Eguneko 12:00ak baino lehen 30€ baino gehiagoko erosketarengatik

**GOSARIA OPARI (KAFFEA + CROISSANTA)**  
2€

**OSOTARA**  
**DESKONTUAK ETA OPARIAK**  
**5,42€**



Eta gainera...  
Parte hartuko duzu  
**auto baten**  
**eta moto baten**  
**ZOZKETAN**

Gubieneko erosketa 30€  
eta SIMPLY txartelarekin,  
Egubemetako Zozketa Handian  
parte haruko duzu.  
Zozketa eguna:  
2011/01/15, 15:00etan.  
Saria egun horretan bilduko da.



Zozketaren oinarriak sartokian daude ikusgai.

**1. SARIA**  
**auto bat**  
**Peugeot 206+**



Argazki honek ez du kolortatu baliorik.



**2. SARIA**  
**moto bat**